




GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

81. zenbakia

95eko azaroak 17



Uraren egoera Goierrin

○ IÑAKI SORALUZE, BEASAINGO ENPRESENTZAKO KUTXA: ○ “Enpresak orain hasi dira inbertitzen”

Pyme edo Kutxak enpresentzako lan egiten duen Beasaingo bulegoko zuzendaria da Iñaki Soraluze. 1991n, fusioaren ondoren sortu zen bulego mota da. Legazpitik Legorretara bitarteko bulego bakarra da, enpresen gestioari dagokionez behintzat. Ordizia eta Zumarragako bulegoetan administrazio lanak bakarrik egiten dituzte. Kutxa eta enpresen arteko harremanak gauzatzea du helburu, horretarako, enpresaren behar guztiak betetzen saiatzen dira, bai finantza mailan, bai aurrikuspen munduan, “descuento de papel comercial” eginez eta inbertsioetarako prestamoak bideratuz. Enpresa gehienetsuenekin daukate loturaren bat edo beste.

Iñaki Soraluze Azkoitian jaio zen duela 34 urte eta Urretxun bizi da. Enpresa Zientzietan Lizentziatu eta hurrengo egunean hasi zen lanean BBVn. Bost urte egin zituen BBVn eta 7 egin behar ditu Kutxan.

Beasain ondoen

Oso gertutik bizi Iñakik Goierriko enpresen eta ekonomiaren nondik no-

rakoak. “Krisi garaian hiru gune banatuko nituzke: Legazpi-Zumarraga ingurua, Ordizia eta Beasain. Ordizia eta Beasain bata bestearen ondoan daude baina enpresa mailan oso desberdina izan da jokae-
ra. Ordizian krisia Beasainen baino askosaz ere gehiago nabaritu da. Hori bai, igoera orain beste herrietan Beasainen baino gehiago nabarituko da. Beasain eta Olaberria izan dira Gipuzkoa mailan ondoen aguantatu dutenak”, adierazi du Iñakik. “Goiekik egindako ikerketa baten arabera, 32 produktu produzitzen dira Beasainen eta horregatik eutsi dio krisiari ondoen. Beasain bagoiekin lotzen da beti, baina 32 produktu ezberdinetaraino produktu asko daude”, gaineratu du.

Dena den, gaur egun Beasainen egoerak hobea izan behar luke Iñakiren iritziz. “CAF oso ondoa da, baina orain dela 6-7 bat urte, lan gehiago sortzen zuen bertako lantegietan. Lantegi txiki askok CAFentzat bakar-bakarrik egiten zuten lana. Baina hiruzpalau urteotan, CAFek ahalik eta merkeena lan egiten duten lantegiak bilatu ditu eta lan asko ari da bidaltzen Palencia, Valladolid... inguruetara. CAF bere enpresa bezala ondo doa, baina ez dute negozio hori hemen bertan banatzen”.



Irizar ere momentu ona ari da bizitzen. “Irizar nahiko justu ibili zen duela bizpahiru urte. Autobusek, noski, beraien zikloa daukate: autobusa erosten duenak piska batean ez baitu berriz ere autobusik erosiko. Modelo berri bat egin zuten Irizarren, Century eta ondo sartu da”.

Aristrainetaz ere aritu gara. “Aristrain beste mundu batean dago. Aristraingo fakturazioa oso lotuta dago European erabakitzen dutenarekin. Tonak jaistea agintzen badu Europak, Aristrainek jaitsi beharra dauka”, azpimarratu du azkoitiarrak.

Inbertsioak

Ekonomiaren gorakada nabari da aurrean. Dena den, “beldurra dago, noiz arte iraungo ote duen igoera honek. Segurantz horretan mugitu dira enpresak lehenengo 9 hila-

beteotan, orain arte ez dute inbertsio handirik egin. Baina oraintxe hasi dira inbertsioetan”. Maki-neria mailako inbertsioak egiten dira batez ere, eta horrek, noski, lana sortu baino gehiago, murriztu egiten du. “Langabezia nire ustez, belaunaldi zikloarekin jaitsiko da. Jende asko dago aurrejubila-
zioaren zain, eta hor zulo bat dago, ez dago jende gazterik, gerra ondoren ume gutxi jaio baitzen. Orduan, zaharrenak jubilatzen direnean sartuko dira gazteak. 10 jubilatuta eta 2 gazte sartuta ere, langabezia jaitsi egingo da”, azpimarratu digu. Dena den, gaztediaren mentalitatea aldatu beharrean dagoela uste du Iñakik. “Ez pentsa lantoki batean sartu eta betirako egon behar duzunik. Prestatuta dagoenak ez du zertan beldurru beharrik batetik bestera ibiltzeko”.



kutxa fundazioa
fundación kutxa

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.

(Postetxe-gainean).

Tfnoa: 889612.

Faxa: 882719.

124. posta-kutxa,
20240 Ordizia.

Zuzendaria:

Loinaz Agirre.

Maketazioa:

Mikel Albisu.

Publizitatea:

Josune Agirre.

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon
Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
kane Altuna eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista
eta kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Jon Aizpurua, Izaskun Salazar,
Aitziber Murua, Rufino Iraola,
Xabier Gartzia, Iraidia Martin,
Aloña Galarraga, Josune
Amondarain eta Jon Imanol
Iturrioz.

**Fotokonposaketa eta maketa-
zioa: GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
(Industrialdea, 1-2. Lasarte-
Oria)

Tirada: 5.100 ale. 4.900 harpi-
dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du
bere gain hartzen derrigorrez,
aldizkarian adierazitako esa-
nen eta iritzien erantzunkin-
zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Baserriko hegazti hiltegia Zerainen

Baserriko hegazti hiltegia inauguratu zuten joan zen igandean Zerainen. Edozein hegazti hil daiteke bertan, 'eusko labela' duten baserriko oilaskoak barne. Atlantiar moetakoa, zelaian hazitakoa, elikaduraren % 60 artoak osatua duen oilaskoak izaten dute 'eusko labela'. Baldintza hori betez gero, hiltegia eraman, eta transformazio edo hiltegi-kate bereziaren ondoren, jarriko zaio kalitatezko zigilua.

Hiltegi normaletan 5.000 hegazti hiltzen badira, Zeraingo hiltegian, transformazio berezia egiten denez, geldiagoa da eta 500 hegazti hiltzen dira. Transformazio prozesua honetan datza: oilaskoak hiru bat minutuz egoten dira ur bero-berotan, 50 gradutan. Ondoren lumatu egiten dira. Kontuz-kontuz garbitu ondoren, aukeraketa eta kalifikazioa egiten da. Hori bai, oilasko guztiek ez dute labela

jasotzeko baldintzarik betetzen, eta batzuk lehenengo eta bigarren mailako bezala sailkatzen dira. Azkenik, 12-16 gradutako kamaretan sartzen dituzte.

10 lanpostu sortu dira, 10etik 9 goierritarrak dira gainera. 65 milioi pezetako inbertsioa egin dute Eusko Jaurlaritzak, Diputazioko Nekazaritza eta Ingurugiro Sailak eta Zeraingo Udalak. Abenduan jarriko da hiltegia martxan normaltasunez. Ezaugarri honetako lehen hiltegia da Euskal Autonomia Elkartean.

Baina zergatik Zerainen? "Nekazal inguruko herri batean jarri nahi zen. Zerain proiektuak garapena bultzatzen du eta oso ondo egokitzen zaio hiltegiaren proiektuari. Gainera, komunikazio onak ditu Zerainek", adierazi digu Mari Jose Murua Luma Gorriko arduradunak.

Besteek esana

"Euskararen erabileran gehiago saiatu nahi dugu funtzionarien bigarren eus-kalduntze-plangintzadian".

J.M. Zeberio Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusiak, 95eko iraileko 'Habe'n.

"Gazteek ere helduen biolentziaz hitz egiteko aukera behar lukete, kontuan izan behar baita askotan gazte biolentzia helduen biolentziaren ondorio dela.(...) Quebecena Euskal Herriarentzat eredu beharko luke izan. Aspaldi ari dira deia-darka Autonomi Estatuak aukera guztiak ematen dizkigula. Aukera nagusia, ordea, falta zaigu".

Patxi Ezkiagak, 95-XI-5ean, 'Egin'en.

"Euskal Herrian ziklo krossa bere posibilitateen gainean ibili da. Orain, berriz, errealitatera jaitsi da. Bertako figurarik ez izanagatik, oso maila altuko probak antolatzen ziren eta jende masa handirik ez zen zirkuitora azaltzen. Antolatzaileen gastuak konpentsatuko zituen ikuskizunik ez zegoen".

Iñaki Maiora, Euskadiko Ziklo Kross selektatzaileak, 95-XI-5ean, 'DV'n.

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Iker eta Urkori agurra:

Agurra luzatu nahi diet Kazereseke espetxean dauden bi zaldibitarrei.

Kazereseke itzal hotzean bi euskal gudari jator, Txindokipera begiratzean haien oroimena dator; abertzaleak direla eta zigortu dituzte gogor, haien omenez bertso batzuek izkiriatzera nator.

Nahiz eta etsaien gogoia izan gu ilunpean uztea, gaur ere argiz baikor jaio da sortaldetik eguzkia, nork nahi izan du Urko ta Iker giltzape hartan herstia?, Euskal Herria maitatzea da euren delitu guztia.

Senide eta adiskideek zenbat dolu, zenbat malko, injustizia salatu asmoz egin da garraisi franko, saminez daude baina bihotzean ez zaie pozik faltako zuen odola euskaldunaren odol garbia delako.

Etsipen latzak egurtzen ditu zelda baten barrenean, gorputz mindua oihu egiten du hango ixiltasunean.

Oilar goiztarra mututua da goiztiriko orenean, baina indarrez kantatuko du itzultzen zaretenean.

Arranoaren hegalean pean aurrera doaz egunak, arrotzen mende ez zenituzten pasako une bigunak, baina alferrik inoiz ez dira izaten estuasunak, gure borrokak iraun artean eutsi goiari lagunak!

Zuen antzera hamaika dago, denok gerade lekuko.

Lege faltsu ta injustu hauei egin behar zaie uko. Aizkora gora jaso dezagun, gora Iker eta Urko!, lapur batzuen gogo zantarrek ez gaituzte makurtuko.


Alaitz Sarasola (Ordizia)

Psikologia, irtenbideak berehala!

Orain dela 3 urte, ikasketa plan berria ezarri zenetik, arazoak, bata bestearen atzetik izan dira, egoera jasan ezin batetara iritsiz, ordaindu ditugun eskeintzak ez bait zaizkigu ematen. Kultura eta irakaskuntzaren oasia ilusio optiko bat besterik ez da, arazoaren benetako aurpegia ikustea eragozten digun aluzinazioa. Arazo hauetaz, irakaskuntzaren arduradunek ez zuten idatzi plan berriaren liburuetan: beharrezko irakaslegorik ez egotea, euskarazko irakaskuntza erabatekoa izatea, matrikulan ordaindutako praktikak ez izatea, asignatura optatiboak eta abar.

Era honetan, EHU-k gure eskubidea den psikologi formazio gutxieneko bat emateko ezintasuna agertzen du. Hau horrela egonik, eta Iñaki Albistur jaunak (Fakultate honetako dekanoa) behin betiko irtenbiderik ez duenez eskeini, egoera kaotiko batetara garamatzan arazo honentzako benetako neurriak hartzea exigitzen dugu.

*Ikasleen Koordinadora - Psikologia
Fakultatea - UPV/EHU Donostia*



ANTZA

i txura baino gehiago...

FOTOKONPOSAKETA

INPRIMATEGIA

Industrialdea 1-2 • ☎ (943) 37 15 45 - Faxa: (943) 36 10 48 • 20160 LASARTE-ORIA

Intereseko Telefonoak

ORDIZIA

Gurutze Gorria	272222
D.Y.A.	464622
Anbulategia (Ordizia) ..	881165
Anbulategia (Beasain) ..	880759
Eskualdeko Ospitalea ...	723813
Ertzantza	887350
Udaltzaingoa	884005
Suhiltzaileak	881362
Udaletxea	885850
Ongizate Saila	888250
Obralan Bulegoa	882465
Kontuhartzailletza	887600
Kultur Etxea	881280
Herri Antzokia	880744
Majori Kiroldegia	889333
RENFE	283039
Oiangu Baserria	889106



**Rakel Sotok emana
Haizpe jatetxea
Ordizia**

Errezeta

MUSKUILU BETEAK

Osagaiak: kilo erdi muskuilu edo mejiloi, kilo erdi ganba, tipula, perrexila, piperrautsa.

Batetik, muskuiluak edo mejiloiak lurrunetan garbitu eta ireki. Haragia kendu eta puska fin-finetan moztu. Bestetik, ganbak zuritu eta txikitu.

Ontzi batean olioia, tipula eta perrexila jarri. Eginda

daudenean ganbak eta muskuiluak gaineratu. Piperrauts piska bat ere botako diogu.

Bexamel arina egin ondoren, (bexamela egiteko gurina edo mantekila, olioia, irina, esnea eta gatza behar dira) aurretik prestatutakoa nahastu.

Muskuilu oskola bete eta ondoren ogi arrailatuan pasatu. Frijitu eta jateko prest.



Bota bertsoa



**Haritz Zeberio
Gaia: Intsumisioa
Doinua: Batetikan korrozka**

Zerbitzu militarra denon arazoa
bizitzaren zati bat
pikutara doa
"Patria" babestera
zer eskandaloa
gauza bat argi daukat
ni behintzat ez noa
oihu egin dezagun
intsumisioa!

Nola ez dugun joan nahi
eta ez goazen
batzu sartu dituzte
gartzelara zuzen
jakinerazi nahi dut
tinko gaude hemen
ta jarraituko dugu
oihukatuz ozen
intsumiso presoak
askatu ditzaten.

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumaraga, 46 Kma.

☎ 88 17 00 - 88 17 04

BEASAIN


Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe

Mariaratz, 4
Tfona: 88 86 84

BEASAIN

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.

Tfona: 880543 BEASAIN

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



**OKINDEGA
GARONA**

K. Nagusia, 35 Elosegi, 14 Sta.Maria, 19

☎ 88 77 58

☎ 88 72 79

☎ 16 00 44

BEASAIN

LAZKAO

ORDIZIA

Lana

□23 urteko neska euskaldun bat prest dago etxe-kolanak egin, umeak zaindu, zerbitzari edo dependienta bezala lan egiteko. Esperientziaduna. 88 33 28.

Etxebizitzak

□Zaldibian etxe adosatu bat dago salgai. Hiru logela, egongela tximenetarekin, sukaldea, bi bainu, ganbara eta garajea ditu. Deitu gaueko 9etatik aurrera 16 11 61 telefonora.

Salerosketak

□Kerosenozko berogailu bat erosiko nuke prezio onean. 88 14 06.

□Plantxadun Vapporettoa saltzen da. Berria dago. 161948.

□Labadora bat salgai "Balay T-8223". Larunbat goizetan deitu. 884580.

□Pointer txakurra salgai. 40.000 pezeta. 88 73 00 (Juan Karlos).

□8 urte inguruko haur-
rentzako mountain-bike saltzen da. Egoera eta prezio onean. 16 01 88.



ANTZERKIA

✓ Beasain:

Azaroak 30, Sergio Diotti italiar taldeak 'Tiempo de Fabula' txotxongilo obra eskeiniko du Usurbe Antzokian, 19:00etan. Sarrera 500 pezeta.

MUSIKA

✓ Beasain:

Azaroak 18, Musika Eskolako Harizko Orkestraren kontzertua, Andre Mari Zerurutuaren Parrokian, 20:30ean.

Azaroak 18, Richarden errezitaldia kantu mota desberdinekin, Aterpe Tabernan, 23:00etan.

Azaroak 19, Tirri-Tarra txarangaren kalejira, 18:30ean. Ondoren, 19:00etan, 'Tirri-Tarra Show' ikuskizuna San Martin Plazan.

Azaroak 20, Xabier Lizasoren piano kontzertua Udaletxeko Batzarre-Artoan, 19:30ean.

Azaroak 21, Musika Eskolako ikasleen kontzertua Udaletxeko Batzarre-Artoan, 19:30ean.

Azaroak 22, 'Lousiana Red' en emanaldia, Usurbe Antzokian, 20:00etan. Sarrera 600 pezeta.

Azaroak 25, Jose Mari-
ren errezitaldia euskal kantuekin, Aterpe Tabernan, 23:00etan.

✓ Ordizia:

Azaroak 17, 'Cuarteto Barroco', Barrenan, 19:30ean (Bach musikaldiaren barnean).

Azaroak 18, 'The Scholars Baroque of London', Eliza Nagusian, 20:30ean (Bach musikaldiaren barnean).

ZINEA

✓ Beasain:

Azaroak 17, 'Jungla de cristal. La venganza' 19:30 - 22:15.

Azaroak 18, 'Boca a boca' 19:30 - 22:15.

Azaroak 19, 'El hijo de la Pantera Rosa' 17:00. 'Jungla de cristal. La venganza' 19:30 - 22:15

Azaroak 20, 'Jungla de cristal. La venganza' 19:30 - 22:15.

Azaroak 24, 'Marea roja' 19:30 - 22,15.

Azaroak 26, 'Marea roja' 19:30 - 22,15.

Azaroak 27, 'Marea roja' 19:30 - 22,15.

Azaroak 23, 'Haur Lehoia', ikasleentzat, EZA kanpainaren barruan, Usurbe Antzokian, ikaste-txteen ordutegian.

'The commitments' - Alan Parker (Britainia Haundia, 1991)

Jimmy Rabbit-ek "soul" musika Dublinera eramateko ametsa bete nahi du. Bertako egunkarian honako iragarkia argitaratuko du: "Ba al duzu «animalirik» («soul»ik)? Hala bada, munduan gogorren lan egiten duen musika taldea zure atzetik dabil".

Deco, Jimmy-k ezkontza batean mozkortuta kantatzen ezagutu duena; Dean, birrikak itota hil zen osabaren saxoa besapean; Billy Mooney; Steve, bere amonaren pianoarekin eta Joe "ezpain" Fagan, Elvis, Otis, Beatles etabarrekin jo omen duen tronpetaria izango dira Jimmy-rekin batera "The commitments" taldeko ki-deak.

Kontzertuetan arrakasta berehala lortzen hasten badira ere, eszenatokitik kanpo gauzak ez doaz hain ondo eta harremanek okertzera egingo dute, taldekideen arteko bekaitzak eta lehiak direla medio.

Goieniz Zine Kluba:

Azaroak 23, 'Commitments', Usurbe Antzokian, 21:00etan.

✓ Ordizia:

Azaroak 17, 'Apolo 13' 22:15.

Azaroak 18, 'Apolo 13' 19:30 - 22:15.

Azaroak 19, 'Mis aven-



ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g Iurre auzoa
Tfona: 88 09 47 OLABERRIA

IKAS EZAZU MEKANOGRAFIA



**meca
rapid**

Urdaneta, 23-1. ☎ 887278 **ORDIZIA**



Tfona: 885500 **ORDIZIA**

turas con Manuk el esquimal' 16:45. 'Apolo 13' 19:30 - 22:15.



Azaroak 20, 'Apolo 13' 19:30.

Azaroak 24, 'Guantanamo' 22:15.

Azaroak 25, 'Guantanamo' 19:30 - 22:15.

Azaroak 26, 'Guantanamo' 19:30 - 22:15.

Azaroak 27, 'Guantanamo' 19:30.

BESTELAKOAK

✓ Beasain:

Azaroak 29, Virginia Imaz ipuin kontalariaren eskutik, haurren irakurketa suspertzeko saioa, Ezkiaga Auzo Etxeko Liburutegian, 17:30ean.

✓ Ordizia:

Azaroak 22, ipuin kontaketa Pello Añorgaren eskutik, Udal Liburutegian, 17:00etan.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain:

Azaroaren 17tik 26ra, Faustino Orbegoza Fundazioaren erakusketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa-Aretoa.

Azaroaren 20ra bitartean, Juanjo Romanoren erakusketa, Aterpe Tabernan.

Azaroaren 21etik abenduaren 15erarte, Martin Arruabarrenaren erakusketa Aterpe Tabernan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Azaroak 19, Behorlegi-Zuberoa.

Azaroak 26, Annie (2.349 m.)

Ordiziako mendizaleak:

Azaroak 19, Arano-Arritxulegi.

Azaroak 26, Ganbo.

Idiazabalgo mendizaleak:

Azaroak 19, Etegarate-Lizarrusti.

GOARDIAKO BOTIKAK

Azaroak 17: Urbizu; **18-19**: Arriola; **20**: Atorrasagasti; **21**: Azpilikueta; **22**: Jauregi; **23**: Larnaga; **24**: Cuesta; **25-26**: Urbizu; **27**: Arriola; **28**: Urbizu; **29**: Atorrasagasti; **30**: Azpilikueta.

IKASTEK AKADEMIA

- Maila eta arlo guztiak
- Laguntza pertsonalizatua
- Kalitatea eta esperientzia

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN



GOITGI OKINDEGIA Ogigintzan onenak!!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ◆ Egurrezko labeen egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauek

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737



Bertako kiwiak nobedade

Urrestilla aldetik etorri zitzaigun asteazkenean nobedadea. Lehenengo kiwiak izan ziren salgai; kiloa 300 pezetan. Gainontzean, **bertako produktuetan**, ez zen nobedade handiegierik izan. Errezil sagarrak garestitzen ari dira, ale ederragoak ekartzen hasiak baitira baserritarrek. Kiloa 200-350-ean saldu zen. Intxaurrek, zertxobait behera egin zuten, 400-450. Tomatea 150-250 ean saldu zen; patata 50-60 pezetan; berenjenak 190ean; Lonbardiako aza 50-150ean (neurriaren arabera). Joan zen asteen, artirina salgai ikusi zen. Kiloa 150 pezetan.

Kanpoko produktuetan gaztainak (275) eta udareek (150-225) gora egin zuten. Laranjak (100-150) eta piper morroiak (200-250) behera. Bestelakoan, berenjenak (225) eta alkatxofak (200) saldu ziren.

Arkumeak ugari, 100.550 eta 560 pezeta bitartean saldu zen. Untxiak, hiru zaku, 240an. **Ehizari** dago-kionean, 10 bat uso (900-1.000), faisán bakarra eta 100dik gora birigarro (100 pezetan) izan ziren. **Perrretxikuetan**, berriz, kanpoko onddoak, 50 bat kilo, (2.700-3.000) eta bertakoak 4 bat kilo (3.000). Gibelurdinak gutxixeago, kilo eta erdiren bat-edo, 2.500-2.700 pezetan kiloa.

Landareetan, tipula gorri landarea izan zen nobedade. 300 pezetan saldu zen zientoa. Garai ona da bai tipulak landatzeko.

Eta bukatzeko **arrainak**. Legatza 2.080an; antxoak, neurriaren arabera, 790 eta 840 pezeta bitartean; sardinak 580an; itsas-oilarra 1.200ean; mihi-arraina 1.630ean; txitxarroa, handia, 880an; zapoa 1.880an; hegaluza 1.150ean.

VI. BEASAIN IDAZLAN-LEHIAKETA

antolatu du Beasaingo Udaleko Euskara-batzordeak, Gipuzkoa-Donostia Kutzak lagunduta, ikasleen euskaraz idazteko trebetasuna sustatzeko. 3 talde bereiziko dira:

* A maila: 1978, 1979, 1980 eta 1981. urteetan jaio eta Goierriko Irakaskuntza Er-tainetako Ikastetxeetan ikasten dabiltzan ikasleak eta, Beasainen erroldatuta egonik, beste nonbait ikasten dabiltzan adin berekoak. Hitz-lau edo olerki-sariak daude. Hitz-lauetan gutxienez 4 orrialde eta gehienez 6 idatzi beharko dira; olerkian, gutxienez 60 lerro. Gaia libre da. Sariak: hitz-lauzko atalean, 1goaren-tzat 40.000 pezeta eta oroigarria, 2.aren-tzat 28.500 eta oroigarria eta 3.aren-tzat 17.000 pezeta. Olerkian,


1goak 30.000 pezeta eta oroigarria eramango ditu, 2.ak 21.000 pezeta eta oroigarria eta 3.ak 13.000 pezeta eta oroigarria.

* B maila: 1982, 1983 eta 1984 urteetan jaio eta Beasaingo OHOk Ikastetxeetan ikasten dabiltzan ikasleak. Hitz-lauzko atala besterik ez da izango hemen. 2 orrialde gutxienez eta 4 gehienez. Sariak: irabazlearen-tzat 28.500 pezeta eta oroigarria, 2.aren-tzat 20.000 pezeta eta oroigarria eta 3.aren-tzat 11.500 pezeta eta oroigarria.

* D maila: 1985, 1986 eta 1987 urteetan jaio eta Beasaingo OHOk Ikastetxeetan ikasten dabiltzan ikasleak. Orri bat gutxienez eta 2 gehienez. Deredukoak eta B eredukoak bereiziko dira talde honetan. Sariak, D eta B eredukoentzat berdinak: irabazlearen-tzat 17.000 pe-

zeta eta oroigarria, 2.aren-tzat 11.500 eta oroigarria eta 3.aren-tzat 6.000 pezeta eta oroigarria.

Idazlan lan guztiak abenduaren 15erako aurkeztu behar dira Udaletxeko Euskara Zerbitzuan, Ikastetxe bakoitzak, lehen hautaketa egin ondoren. Idazlan bakoitzarekin batera, gutunazal itxia aurkeztuko da. Horren kanpoko aldean, idazlanaren izenburua eta izengoitia azaldu behar dute eta barruan, egilearen izen-abizenak, ikasketa-maila, helbidea eta telefono zenbakia; idazlanaren izenburua eta izengoitia; eta Ikastetxearen izena. Informazio gehiago behar izanez gero, deitu Euskara-zerbitzuko 88 75 12 telefonora edota jarri harremanetan Patxi Plazaola batzordeburuarekin (42 65 20).



IV. PINTURA

LEHIAKETA antolatu du Beasaingo Aterpe Tabernak. Teknika eta gaia librea. Artista bakoitzeko lan bat aurkez daiteke. Artelanaren neurririk handiena 1m x 1m izango dira. Artelana sinatu gabe egon behar du eta Aterpe Tabernan (helbidea: Ezkiaga Etorbidea, 3) entregatu behar dira abenduaren 12a baino lehen. Bera-ekin batera, sobre itxi batean aurkeztubeharko dira datu eta xehetasunak. Sariak: Aterpe Tabernaren brontzezko logotipoa.



GOIERRITARRAK KULTUR ELKARTEA

BAZKIDE BERRIEN KANPAINA



Goierritarra aldizkaria lagundu nahi baduzu, egin zaitez bazkide
Urteko kuota: 1.500 pezeta.

Izen-abizenak:
Helbidea:
Herria: Tfnoa: Adina: NAN:
Lanbidea: Banketxea: Bulegoa:
Kodea: Kontu zenb:

Elkarrizketa

- "GOIERRITARRA"tik deitzen diat, autodeterminazioaren gainean galdera batzuk egiteko.
- Autodeterminazioa? Gaur hobe bihar baino
- Hi ez hintzen, ba, Estatutuarekin autodeterminatzen ari ginela esaten zutenetakoa?
- Bai. Hori ere egia duk
- Ez diat ezer entenditzen.
- Nolabait esateko, hainbat konpetentziaren jabe garen neurrian eta konpetentzia horiek gure herria antolatzeke darabilzkigun heinean autodeterminatzen ari gaituk.
- Mintza gaitezen maiuskulaz idazten den AUTODETERMINAZIOAZ
- Autodeterminazioa, Estatutua aprobata zenean ez bezala, gaur egun kontsensu puntu inportantea duk. Batez ere hori duk azpimarragarriena. Aurre hartan espainolistek (batzuek) aldarrikatzen ziaten autodeterminazioa eta besteok independentzia eskatzen genian. Beraz, alde horretatik hurbilketa handia egon duk.
- Hortaz...
- Baina oraindik beste kontsensu-puntu batzuk falta zaizkiguk. Esate baterako, ezinbestekoa duk autodeterminazioaren aldekoek estrategia bateratua izatea. Eta sekula santan ez duk hori posible izango, baldin eta, alde aurretik, borroka armatuari buruz kontsensurik lortzen ez bada.
- Amaitu duk?
- Ondorenean ekingo zio autodeterminazio prozesuak bere bideari eta ez lehenago, eta prozesu oso luzea izango duk. Inportantea duk, bestalde, Quebec-en bezalaxe hemen ere erreferenduna gal litekeela mentalizatzea. Eta oso inportantea Estatutua, beste kontsulta bat egin bitartean, kohesio-tresna eta Euskal Herriaren eraikuntzarako lanabes moduan ondo aprobetxatzea ere.

Rufino Iraola Garmendia

PISUA SALGAI BEASAINEN

Pisu eder bat saltzen da Porteria auzoan, Mariaratz kalean
 ☎ 88 76 40

Ura aurrezteko ohiturarik ba al duzu?



Marzelino Izeta
 70 urte, erretiraturua
 Idiazabalgoa

Ura gutxitzen ari da eta horrela segituz gero kaltea izango da. Gutxi dagoen honetan gehiago begiratzen diogu urari.



Niebes Legorburu
 43 urte, etxeakoandrea
 idiazabaldarra

Ez diot kasu handirik egiten. Oraindik ez dira ura moztzen hasi. Lehortea handia da oso, belardi eta errekei begiratu besterik ez dago.



Igor Sudupe
 24 urte, torneroa
 idiazabaldarra

Ur faltarik sekula ezagutu ez dudanez, ura aurrezteari ez diot asko begiratzen.

A ze flaxa!

Ordizia Indonesian

BBC telebista Goierri izan zen, ETari buruz erreportaia bat egiten. Ikastetxe batetara joan ziren BBCkoak, Artapalo edo Pakitok ikasi zuen ikastetxera. BBCkoak eskola horretara joan zirenean, atsedeen-garaia zen, errekreoan zeuden ikasleak. Eta ikasleekin batera irakasle bat ere hantxe zegoen. Eskolako irudi horiek hartu zituzten BBCkoek.

Irakasle hori joan da oporretara abuztuan Indonesiara, Sumatra Irlara, eta hantxe, Sipirok herriskako telebista batean zer ikusiko eta bere eskola, bere lantokia. BBCren erreportaia zen! Oporretan ere ezin lana alde batera utzi!



MUJIKA



BEASAIN

☎ 88 74 00

JOSUNE ESTETIKA ZENTRUA



* Mikropigmentazioa: bekain eta ezpainen makilaje iraunkorra.

* Kontsulta medikua: gizentasuna, barizeak, liposukzioa eta zirujia estetikoak.

* Kiromasaia: kirol eta terapeutikoa.

J.M. Barandiaran Plaza, 3

☎ 88 28 88

ORDIZIA



Xabier Gartzia
(Beasaindar irakasle
eta idazlea)

**“Gaurko
euskal
nazionalista
zuhur batek ez
lituzke
Sabinok
‘pureza de
raza’ delakoaz
idatzi zituen
ergelkeriak
ontzat hartu
beharko”**

Sabino Aranaren etorki-
nekiko ideiak, euskal
bazterretan, jesu amen
esan orduko zabaldu zi-
rela esan nuen honen aurreko
artikuluari. Ideia honen ondo-
rio, bertako euskaldun askok
infernuko etsaiaren parekotzat
hartu zituen kanpotarrak. Gai-
nera, kanpotarrak lurralde ez-
berdinetatik etortzen baziren
ere, euskaldunak haiek guztiak
zaku berean sartu eta honela
deitu ohi ziren: kastillanoak.
Kastillanoak ez ziren parte one-
koak euskaldunarentzat, eta
euskal ama ugari haur kastilla-
noekin ez ibiltzeko esango ziren
beren seme-alaba koittaduei.
Kontu horiek aspaldian ezkuta-
tu zirelakoan nengoen ni, baina,
oraindik orain, “amak kastilla-
noekin ez ibiltzeko esan dit”
entzun diot neskato bati.

Norbaitek esan diezadake
kanpotarrak esne-mamitan bizi
izan zirela hemen, beren lurral-
deetan baino hobeto alegia, eta
arrazoia emango nioke hala-
koari. Beste norbaitek, agian,
kanpotar bat baino gehiago,
inolako arrazakeriarik nozitu
gabe, hemen gustora bertakotu
zela argudiatuko dit, eta hala-
koari ere bat natorkio ni. Bes-
teren batek su zaharrak ez astin-
tzeko erregutuko dit, sutatik kea
besterik ez baita ateratzen, eta
behialako ketan ez baita gaurko
aire garbia ikusten uzten. Za-
lantzak ditut nik, ordea, eraba-
teko aire garbia ote dugun. Nire
ustez, noizean behin gure etxea-
ri haize berritu bat ematea ko-
meni zaigu, etxean aldian-al-
dian sortzen zaizkigun arraza-
keria-arrastoak uxatzeko. Bai
baitugu arrazakeria-arrastorik.
Horren muestra ttiki bat --honi
eta hari entzun eta jaso ditudan
hitzak-- besterik ez dut hemen
erakutsiko. Gizaseme beltza
pasatu zen gure ondotik eta so-
laskideak niri: “horrek ez dik
gauen argi handirik egingo”.
Marokoar itxurako aurpegiera-
dun batzuk ikusita, beste solas-
kide batek: “azkenean horiek
jarriko zaizkiguk hemen naga-

Arraza- keria (II)

si”, “hurrengo gerra horiek bi-
daltzeko izango diagu”. Mun-
duko lanbiderik zaharrenean
aritzen diren emakumeetaz
hizketan ari ginela, beste batek:
“ondo goseak egon behar dik
beltz nazkagarri horiengana
joaten denak”. Ez nion ongi
ulertu bere mezu sakona. Agian,
goserik eduki gabe ere beltzak
ez direnengana joan daitekeela
esan nahiko zuen. Edo pentsa-
tuko ote zuen, apika, ofizio ho-
rretan emakume euskaldunak
aritu ez eta beltz nazkagarrien
ofizioa bakarrik dela?

Sabinotaz ari nintzen eta bere
esanetara bueltatzen naiz. Eus-
karari eman zion arnasa esker-
tzeko, txalo zaparradak joko
nizkioke nik Sabinori, baina
baita astabelarriak jarriko ere
gaztelaniaren gainean idatzi zi-
tuen astakeriak idazteagatik.
Honatx: “Zuben seme-alabaok
ezpa-dabe ikasten erdeleñiko
izkerea, erdera zantara, eztabez
ikasiko erdeldunen ekandu
okerak bez”. Hitz horiei jara-
mon eginez gero, eta Sabino
euskaldun berria zela kontutan
hartuz, zer esan nahi ote zuen?
Bere burua ekandu eta ohitura
okerrez beterik zegoela gazte-
lania besterik ez zekienean? Ez
ote zuen Sabinok berba garbirik
egingo ia bere bizitza guztian
“erdera zantara” besterik era-
bili ez zuenean?

Ni nago, gaur egun, Sabino
Aranaren ideiak osotoro eta
burutik burura onartu barik ere
euskal nazionalista izan daite-
keela. Areago, nire aburuz, ha-
ren jokabide zintzo eta zuzenak
laudatu eta lau haizeetara zabal-
du behar diren hein berean, bada
garaia behin betiko bere okerrak
beldur eta konplexurik gabe
okertzat har ditzagun. Kasura-
ko, gaurko euskal nazionalista

zuhur batek ez lituzke Sabinok
“pureza de raza” delakoaz ida-
tzi zituen ergelkeriak ontzat
hartu beharko. Ez ditut bere hi-
tzak euskaratuko, itzulpenaren
erruz ezer gal ez dezazuen. Ho-
nela idatzi zuen berak “zanta-
ra” deitzen zion hizkuntzan:
“*Qué es, pues, lo que respecto
de la pureza de raza se contiene
en el programa nacionalista?
Puede reducirse a los puntos si-
guientes: 1- Los extranjeros
podrían establecerse en Bizka-
ya bajo la tutela de sus respec-
tivos cónsules; pero no podrían
naturalizarse en la misma. Res-
pecto de los españoles, las Jun-
tas Generales acordarían si
habrían de ser expulsados, no
autorizándoseles en los prime-
ros años de independencia la
entrada en territorio bizkaino, a
fin de borrar más fácilmente
toda huella que en el carácter,
en las costumbres y en el idioma
hubiera dejado su dominación.*
2- *La ciudadanía bizkaina
pertencería por derecho na-
tural y tradicional a las familias
originarias de Bizcaya, y en ge-
neral a las de raza euskeriana,
por efecto de la confederación;
y, por concesión de poder (Jun-
tas Generales) constituido por
aquellas y éstas, y con las res-
tricciones jurídicas y territo-
riales que señalaran, a las fa-
milias mestizas o euskeriano-
extranjeras*”.

Ez naiz bere hitzetan luzatu-
ko, baina, soil-soilik aldatuko
du hona bere beste esaldi hau:
“*la raza maketa no podría vivir
con las leyes tradicionales de
nuestra raza*”.

Sabinoren pentsakera hori
guztiz zaharkiturik gelditu den
iritzikoa naiz ni. Argi eta garbi
ikusten da hori biologia moder-
noak endogamia, exogamia eta
arrazak kontzeptuetaz eskaintzen
dizkigun burubideetan. Buru-
bide horiei eta tolerantziaren
gainean egin ditudan hainbat
hausnarketari ere egingo dizkiet
jaramon hurrengo alean, orain-
go lekuak ahitu zaizkit eta.


Larunbatean odolki lehiaketa-dastaketa Beasainen

Larunbatean, hilaren 18an, izango da Beasainen, Odolki Kofradiak antolatzen duen Odolki Lehiaketa-Dastaketa. XI. edizioa du aurtengoa. Harakinek, ostiralean (hilaren 17an) aurkeztu behar ko dituzte beraien odolkirik onenak, Beasaingo Bareak Elkartean. Iaz Ormaiztegiko Iñaki Kanposek irabazi zuen, eta aurren ere parte hartzekoa da. Dena den, aldaketa bat baino gehiagorekin dator aurtengo Lehiaketa-Dastaketa. Horren berri, Martin Urkiola Kofradiako Lehendakariak eman digu.

Herritarrengana iristeko asmoz, aurren, lehenengo aldiz, San Martin Plazan egingo da Lehiaketa-Dastaketa. *“Iaz arte Bareak Elkartean egiten zen lehiaketa, baina iaz kanpoko jendea etortzen hasi zen, eta aurren, kanpoan, San Martin Plazan egitea erabaki dugu. Foilo handia da, odolkiak lehiaketa baino ordu eta erdi lehenago egosi behar baitira. Arkupeetan jarriko ditugu sukaldeak. Ondoren, Plazan dagoen eskenatokian odolkiak probatzen arituko dira. Eta behekaldean, odolkiak eta ardoa salgai egongo den tabernatxoa jarriko da. 20 durogatik ardoa eta pintxoa probatu ahal izango da”,* zehaztu digu Martin Urkiolak. Aurren gainera, irabazleari, saria bertan emateko asmoa dute antolatzaileek.

Kalitate hobea

Iaz beste aldaketa garrantzitsu bat izan zen, data aldaketarena hain zuzen ere. Iaz artean, Loinazko San Martin egunean, otsailaren 5aren inguruan izaten zen lehiaketa. Baina harakinekin hitz eginez, azaro inguru honetan produktuen kalitatea hobea izaten zela konturatu ziren. *“Tipulak, porruak... pott eginda gelditzen ziren eta urte sasoi honetan tipulak, porruak eta odola bera ere egoera hobean egoten da, baserrietan txerria garai honetan hiltzen baita. Gainera, lehiaketa orain eginez gero, denbo-*



Patxi Sanz eta Martin Urkiola lehiaketa aurretik odolkiak egosten.

raldia luzeagoa gelditzen da”. Data aldaketa honek odolkien kalitatean nabaritu du Martin Urkiolak.

Kofradi bat sortu nahi zen Beasainen eta produktu bat aukeratu behar zen horretarako. Odolkia aukeratu zuten beasaindarrek, bertako odolkiek halako ospea bazuelakoan. Dena den, *“Beasainek baino fama handiagoa daukate Goierriko odolkiek. Beasainek izena besterik ez dio eman”,* gaineratu du beasaindarrek.

“Diferentzia handia”

Goierriko odolkiak arreta, mimo handiarekin egiten dituzte Martinen esanetan. *“Bizkaia aldean odolki eta txerri odola nahastu egiten dute, Buskantza bezala ezagutzen da. Hemen txerriarenarekin bakarrik egiten da. Oso odolki finak egiten dira. Porruak, tipulak oso ondo txikitzen dituzte. Pisuak eta dena ondo finkatuta dituzte odolkia fina atera dadin. Diferentzia handia dago”.*

Epaimahaia Karlos Argiñano sukaldari ospetsuak zuzenduko du. Berekin batera, Jose Juan Castillo, Patxi Castillo, Javier Martinez, Jose Inazio Urkiola, Juanxo Larruzea su-

kaldariak, Pello Garcia Amiano... eta Kofradiako hiruzpalau lagun izango dira epaile. Odolkorik onenak egiten dituenak, plaka eta 25.000 pezeta jasoko ditu. Hori bai, otsailaren 5ean, San Martin egunean, izaten den urteroko bazkarirako odolkiak prestatu behar ko ditu. Beraz, harakinak eta herritarrek odolki lehiaketa-dastaketan parte hartzeko animatu nahi izan ditu Kofradiako Lehendakariak.

Kofradian emakumezkoak

Orain dela 2 urte Kofradian emakumezkoak sartzeko aukera zabaldu zuten. *“Beste Kofradietan bazeuden emakumezkoak. Gure estatutuetan emakumezkoak ezin zela sartu jarritzen zuten. Baina emakumezkoak ere gustora joango zirela eta, aukera irekitzea erabaki genuen. 8 bat daude”,* zehaztu ditu Martinek. Beste Kofradietakoekin harreman zuzena dute. Bartzelonatan sortu berri den Uraren Kofradian izan ziren joan zen astean. Era honetan, *“gure izena, Beasainen izena zabaltzen ari gara leku guztietan”.*

 Loinaz Agirre

Ba al dakizu?

□AUTOBUSAK HARRA-PATUTA hil zen joan zen astelehenan Ordizian, S.M.M. 89 urteko gizonak. Diego Rivero eta Urdaneta kaleak bat egiten duten lekuan gertatu zen istripua, eguerdiko 12ak aldera. S.M.M. agurea Beasaingo anbulatorioarako bidean hil zen.

□ETSEGARATE


BIKOIZTEKO proiektua lehenbailehen aurkeztu dezaten eskatu die Araba, Sakana, Tolosaldea eta Goierriko 82 alkatek Gipuzkoako eta Nafarroako foru gobernuei. *"Ikusten dugunez Arabak N-1 errepidean bukatzen du bere lanen zatia eta Nafarroak, berriz, bi urte barru amaituko ditu Altsasuko korapiloa eta N-1ekin lotura Eginon. Baina ez da ezer aipatzen Etsegarate portuari buruz. Leku honetan N-1 errepidetik egunero 30.000 auto pasatzen dira, horietatik gehienak pisu handikoak"*, azaldu zuen Jose Angel Agirrebengoa Altsasuko alkateak 'Etsegarateren aldeko Plataforma'ren izenean.



□HEZI KOLEKTIBOAK Estatu mailan Madrilen egingo den 'Expoempleo' azoka aurkezteko prentsurrekoa eman zuen joan zen ostegunean Ordizian. Azaroaren 22tik 24ra izango da azoka eta gazteak gonbidatu nahi izan zituzten. Hezi Kolektiboak lana aurkitzeko informazioa, orientazioa eta motibapena eskaintzen ditu. Hezi Espainiako enpleguaren al-

12-GOIERRITARRA

deko taldeak biltzen dituen Araña kolektiboko kidea da. Ihardunaldion helburua, *"Arañan dauden taldeak ezaugarazi, elkarlana bultzatu, eta udalekin eta administrazioarekin haiek duten harremana handitu"* nahi dute. Informazio gehiago nahi izanez gero, dei 16 13 63 telefonora (Maite Riaño edo Mari Karmen Lopetegi).



Ordiziako Tren Geltoki aurreko kioskoaren aurrean zeuden bi zuhaitzetatik bat erori zen joan zen ostiralean. Azpian Ford-Escort gorri bat harrapatu zuen, eta zuek ikusi nola gelditu zen. Dena den, kalte pertsonalik ez zen izan. Egingdako kaltea ikusita, bigarren zuhaitza bota egin zuten joan zen asteartean.

□UMORE ONA Ordiziako Zaharren Egoitzako abesbatzak 8 urte bete ditu. 13 emakumek eta 4 gizonak osatzen dute, gehienak 70 urtez gorakoak. Gipuzkoa osoan barrena aritu dira beraien erreperitorioa eskainiz.

□ARDO AZOKA. Arabar Errioxako Ardoaren III. Azoka egin zen joan zen asteburuan Ordizian. 16 bodegatako ardoak izan ziren dastagai Plaza Nagusian. 4.000 bat lagunek bisitatu zuten. Aurtengo uzta bikaina izan omen da, azken urteotako onena.

□ORDIZIAKO AZOKA LOGOTIPO BILA. Ordiziako Udala, Goimen eta Goieki hor dabilta azken aldian 1512. urtetik asteazken-ero Enparantza Nagusian egiten den azokari bultzada bat eman asmoz. Hori dela eta, perira etortzen diren baserri-tarrek bilerak egin dituzte, besteak beste hauen iritzi eta gomendioak jaso asmoz. Epe laburrera begira, postu ba-koitzak bere mantela izango duela ziurtatu digute. Honez gain, saltzailearen izena eta nongotasuna agertzen dituen bereizgarri bat ere izango da. Aurrekoaz gain, aurrerantzean azokaren ezaugarria izango den logotipoaren bila ere hasi dira. Irabazlearentzat 125.000 pezetako saria egongo da. Baldintzetako bat logotipoan "Ordiziako azoka" agertu behar dela izango da. Lanak azaroak 30a baino lehanago bidali beharko dira udaletxera.



□GIPUZKOAKO BERTSO TXAPELKETA sartu da finalurrekoetan. 4 goierritarrek egin dute aurrera: Iñaki Murua gabiriarra (sailkapenean lehenengo izan da), Mikel Mendizabal itsasondarra (13.), Aitor Sarriegi beasaindarra (14.) eta Joxe Ramon Elorza ormaiztegiarra (15.). Hurrengo saioak Azpeitian, Errenterian eta Ordizian izango dira. Hilaren 19an, Azpeitian Iñaki Murua eta Mikel Mendizabal arituko dira; hilaren 26an,



TELLERIATARRAK bilduko dira aurten ere laugarren aldiz. Lehen abizena Telleria duen edonork har dezake parte bazkari honetan. Abenduaren 3an izango da, Lierniko Mujika jatetxean. Aurretik, 13.00etan, Meza izango dute. Izena Joxe Telleriak Beasainen duen aseguru etxean eman dezake, bulego orduetan. Telefonoak: 88 26 43 - 88 71 55. Arg.: Fotoetxe

Errenterian, Joxe Ramon Elorza; eta abenduaren 3an, Ordizia Majori Kiroldegian, Aitor Sarriegi.



GOIENIZ ZINE KLU-BAK pelikula berezia prestatu du, batez ere, musika gogoko duten gazteen-tzat: "Los commitments". 3.000 lagunetik gorako "casting" batez eta 300 abesti inguruko aukeraketaz baliatu zen Alan Parker pelikula hau egiteko. "Soul" musika aldarrikatzen saiatzen da soinu banda aparta baten bidez. Komedia atsegin eta barregarria da. (Argumentuaren berri gehiago agendako orrietan duzue). Gusto baduzue, azaroaren 23an, Beasaingo Usurbe Antzokian, 21:00etan, duzue zita, 450 pezetaren truke.

JOSE RAMON SOROIZ aktore legorretarra Ttanttaka taldearen 'Umekeriak' antzezlaneko protagonista dugu, euskarazko bertsioan. Bakarrizketan oinarritutako lana da, nekazaritza giroan bizi den haur batek gogoratu egiten ditu bere bizitza hunkitu duten hamar une. Zer esanik ez, umorezko tartetxo bat pasatzeko aukera ona eskaintzen du antzezlanak.

PATXI EZKIAGA legorretarrak hirugarren aldiz, irabazi du Euskadi Saria, 'Karen Airamekoa' eleberriarekin. Eleberri saritua ez omen da eleberri konbentzionala epaimahaikideen esanetan. "Eleberri poetikoa da. Ez du trama sendorik, egilearen sentimendu eta gogoetek dute nagusitasuna". Legorretarraren prosazko lanik ederrenetzat jo du epaimahaiak.

EKAITZ GOIKOETXEA beasaindar bertsolariak beste sari bat irabazi du bertso-paperetan. Oraingoan Zumarraga-Urretxuko XI. bertso-paper lehiaketa irabazi du, 18 urtez beherrakoen sailean.

JUAN INAZIO IZTUETA zaldibitarraren 'Ez direlako aketsak' liburua kaleratu berri du Alberdania etxeak. Obra honekin, Klasikoak atala estreinatu du argitaletxeak. Inazio

Mujika Iraolak moldatutako Iztueta-
lanean osatutako fruitua da.

AMAIA INSAUSTI olaberritarrak bigarren egin zuen emakumezkoetan, Behobia-Donostia korrikaldi ospetsuan. 815 emakume hartu zuten parte, eta iaz bezalaxe 2. postua lortu zuen. Dena den, iaz baino 2 segundu behar izan zituen Amaiak 20 kilometroko ibilbidea burutzeko.

ARAKISTAIN BEASAINEN. Beasaingo Futbol Taldeak entrenatzaile berria du joan zen asteaz geroztik. Jesus Mari Zamoraren ordeztu, Jose Mari Arakistain elgoibartarrak hartuko du taldearen zuzendaritza. Zamorak dimisioa aurkeztu zuen, futbol taldearen emaitza eskasak ikusirik.

ATAUNGO HIRU AUZOETAKO korrikaldian errekor berria ezarri zuen Pello Garin zizurkildarrak. Santi Gonzalez beasaindarren esku zegoen markarik onena, 56 minutu eta 35 segundurekin. Garinek 23 segundutan hobetu zuen marka. Nesken artean, Mari Karmen Elorza segurarrik egin zuen denborarik onena. Ataundarren artean, gizona ezkoetan, Juan Arrondo izan zen lehena eta emakumezkoetan, Agurtzane Auzmendi.

Ur arazo handiegirik ez

Hau ez da normala. Hori-
xe da guztion ahotan
dabilen esaldia. Aza-
roaren erdia pasatu da
jada, eta ia ez du euririk egin.
Urtegiak oso beheran daude,
herrietako ur-biltegiak edo
deposituak juxtu-juxtuan
daude, mendiko iturrietan ura
tantaka dator. Xehetasun guz-
tiak bildu nahi izan ditugu
erreportaia honetan.

Arriaran eta Lareoko urte-
gietako urarekin hornitzen di-
ra Goierriko herririk nagusie-
nak: Beasain, Ordizia, Lazkao,
Idiazabal, Segura, Ormaiztegi
eta Olaberria Arriarandik eta Ataun
Lareotik. Bi urtegi egoeraren berri
jakiteko, Joxe Saizar, Gipuzkoako Ur
Kontsorzioko Ustiapen Zuzendariare-
kin izan gara.

89an izan zen lehortetik hona gauzak
asko hobetu dira Goierriin. Arriarango
urtegia egin da harrez gero, eta kanti-
tatea eta kalitatea garantizaturik dau-
kagu Joxe Saizarrek adierazi digunez.
“Kalitateari dagokionez, gaur egun
Europak agintzen duen legediarekin
daude eginda instalazioak. Kantitate
aldetik, 89an zegoen hedadura eta
oraingoa oso ezberdina da. Lehen he-
rri bakoitzak bere erreka-eta erabil-
tzen zituen eta gaur egun Arriaranek ia
Goierri osoa hartzen du”.

Arriarango urtegia

3.200.000 m³ kapazitatea du Arriara-
nek. Momentu honetan 752.000 m³ di-
tu, % 24an dago. “Kontutan hartzen
badugu azkeneko 8 egunetan izan den
demanda eta sartu dena, Arriaranen



Arriarango urtegia bere kapazitatearen % 24an dago.

bakarrik hiru hilabeteko ura dagoela
esan daiteke”. Arriaranen 3 hilabeteko
eboluzioa eta beste urtegiekin aldera-
tuz ur kantitatea nahiko beheran ze-
goela ikusirik, Beasaingo Makinetxe
putzuko ura erabiltzen ari dira. “La-
rrialdiko lurrazpiko putzua da Maki-
netxe. Putzuetako ura lurrazpitik atera
behar denez, bonbeo bitartez atera
behar da, eta askoz ere garestiagoa da.
Bestetik, Makinetxeko urak ez dira
kalitatez onenak, burni asko dute, eta
Arriarango tratalekura eraman behar
dira, ura tratatu eta hoditegian sartze-
ko”, argitu digu Joxek. Makinetxeko
uraz gain, Lareoko ura hor dago Arria-
rango urtegiak oso behera eginez gero.
“Lareok daukan azpiegiturarekin
bertako ura, goi mailako sarean zuzen-
ean sartzeko aukera badugu. Arazo
bat dago, Arriarango ura tratatuta
sartzen da ur sarean eta Lareokoa ez.
Lareoko ura ona da, kloratuta sartzen
da, baina ez du Arriarangoak duen
kalitate mailarik”. Beraz, Makinetxe
putzuko eta Lareoko ura kontutan har-

tuta, 5 hilabetetik gorako ura
ziurtatuta dago Goierriin.

Lareoko urtegia

Lareoko urtegiaren funtzio
nagusia Agauntza erreka ur
minimo batekin mantentzea
da. Bestetik, Aiaiturrietako
sarearen bidez, Atauna ura ba-
natzea. Eta gaur edo bihar
beharra izango balitz, Beasain,
Ordizia... herrien sarea urez
hornitzea. 89an zuen kopu-
ruaren ia bikoitza du aurtan,
garai hartan Beasainek, Ordi-
ziak eta Lazkaotik bertatik
hartzen baitzuten ura. 2.200.000 m³
kapazitatea du eta momentu honetan,
1.037.000 m³ ditu, % 47 (8 hilabete-
rako ura). 89an % 30an egon zen aza-
roaren 13an.

Akatsik ez

Azken aldi honetan Arriarango urte-
giak ur ihesa duen zurrumurrua zabal-
du da. Joxe Saizarrek ukatu egin du
zurrumurrua. “Arriaranek ez du aka-
tsik. Urtegia berria da eta behin obra
bat bukatu eta gero segimendua egiten.
Segimenduaren faktoretako bat filtra-
zioa da. Filtrazioa zer da? Zenbat ihes
edo fuga izaten den kontrolatzea.
Arriarangoak puntu batetik gora ur-
ihes gehiago izaten du. Hori minimo
bat da, ur gutxi galtzen da hortik. Beste
urtegietan ere normala da horrelako
ihesak gertatzea. Injekzio batzuk
egingo dira fugak gutxitzearen.
Arriarango urtegia nahiko obra sin-
gularra da eta teknikoki oso goraipa-
tua izan da”, azpimarratu du.

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
Tfno.: 88.51.68
ORMAIZTEGI

**OTEÑE
ERRETEGIA**

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabean

Larraitz bidea



GAINTZA

88 98 48

● Gainontzeko herrietan

ITSASONDO. Adarre eta Mendibil iturrietatik hartzen dute ura. Minak ere hor dituzte ur falta dagoenerako, baina momentuz behintzat ez dute horren beharrik.

LEGORRETA. Basabe menditik hartzen dute ura. Nahiko ur dago bertan. Eta zenbait momentutan, Legorretatik kanpora eramaten dute ura.

ZERAIN ETA MUTILOA. Zerainen dagoen Lasurtegi iturburutik hartzen dute ura. Kanalizazioa egin berria da eta momentuz ez daukate inongo arazorik.

EZKIO-ITSASO. Zumarragatik hartzen dute ura gehien bat. Iturbururen bat badago eta sondeoak ere egin dituzte, baina ez dira aprobetxatzen. Oraindik ez dute arazorik.


ARAMA. Errezolako iturritik hartzen dute ura. Urez ondo dabilta oraindik. Mozketaren bat edo beste izan dute matxura edo aberiengatik.

ALTZAGA. Iturbe iturritik hornitzen dute herri kaskoa. Ura falta denean, Itsasondoko Izarreko minatik bonbeatzen dute, eta dagoeneko hasiak dira bonbeaketetan. Baserriek depositu partikularrak dituzte.


ZALDIBIA. Betiko iturburua dute, Iñustin, Arkaka inguruan dagoena. Eta beste bi erreka ere badituzte inguruan. Baina ez dute behar adina ur ematen eta urtero maiatzetik aurrera edo, CAF-eko kanaletik hartzen dute ura. Oraindik kanaletik hartzen jarraitzen dute eta bertan ez da inoiz urik falta izaten.

GABIRIA. Iturburuetatik hartutako urekin osatutako depositua dute herri kaskoa hornitzeko. Ur gehiegirik ez dute eta moztekotan dabilta. Dena den, sakabanatuta dauden baserriek, bakoitzak beraien deposituak dituzte.

GAINTZA. Oso gaizki dabilta. As-tean pare bat aldiz, kamioiekin depositua betetzen dute, ura Arriarandik ekarriaz.



Ezkerreko argazkian Arriarango tratalekuko instalazioak. Eskubikoan Lareoko urtegia, bere kapazitatearen % 47an dago.



Zegamako kasua

Aizkorri magaleko iturburuetako urez osatutako ur-depositua du Zegamak. 'Plan de Abastecimiento y Saneamiento' egin zenean Zegama ez zen Arriarenen sartu, ur on eta ugariak zitu-elako. "Ura oso ona da kalitatez. Kloroa botatzen diogu urari, hala behartzen gaituztelako", argitu digu Eduardo Telleria iturginak.

Aurten arazotan dabilta. 1952. urtetik honako datuak dauzka Eduardok eta aurten jaitsi omen da ura gehien. "56an eta 83an ere ikaragarri jaitsi zen, baina aurten gehiena, beldurgarri. Aurten oso justu gabilta. Azken 6-7 urteetan larrialdietarako iturriak batere erabili gabe egon gara eta aurten denak hartu behar izan ditugu, eta hala ere, juxtu-juxtu gabilta. Eurria normal eginez gero Zegamak ez dauka arazorik, iturriak asetuta egoten baitira. Aurtengoa anormala da erabat".

Zegamako San Bartolome auzoak bere depositua dauka, auzoa Zegamako depositua baino gorago baitzegoen

depositua egin zenean. San Bartolomeko urak ez omen dira herrikoak bezain onak. Hori bai, San Bartolomeko auzokideak oso sentsibilizatuta omen daude urari begiratze horretan. "Ez dago erregadiatzea debekatuta dagoela dioen kartelik jarri beharrik. Depositua gainezka ikusten ez badute, ez dute erregadiatzen. Miseriak pasatu dituzte urarekin eta oso kontzientizatuta dago auzoa", adierazi du Eduardok.

Otzaurteko urtegia

Otzaurte inguruan urtegi bat egin dute baina oraindik ez dute bertako urik jasotzen. "Oso korapilatsua da horko arazoa. Sakana alderako ura da urtegikoa. Legez eta konzesioa 'Electra Aizkorri'-rena da. 'Electra' honek Udalari beste konzesio bat dauka emanda, segunduko 8 litro ur emateko. 92an Ur konsorzioak ekarri bat egin zuen eta ur hori ez dugu oraindik ikutu".

ZALDIBIA

Aiestaran-errekak Santa Barbara omenduko du

Abenduaren 4an Santa Barbara eguna da. Orain dela hiru bat urte, Aiestaran-errekak auzoan, Aiestarangoena eta Errekaldereen tartean, kapilatxo bat eraiki zen Santa martiri honen izenean eta handik hara berritu da usadioa. Eguna abenduaren 4 dela esan badugu ere, festa abenduaren 8an izango da, honako programa honen arabera: Eguerdiko 12:30ean, elizkizuna Santa Barbararen kapila aurrean. 13:30ean, ume-jolasak eta trikitixa Lazkaetxen. 14:00etan, lagunarteko bazkaria Lazkaoetxe jatetxean. 15:30ean, Iraola eta Zeberio bertsolarien saioa. 16:00etan Mus Txapelketa; 17:00etan trikitixa. 20:00etan amaiera.

Bazkaria bi menu hauetako batekin osatuko da: entsalada mistua, oilo-zopa, redondoa saltsan, postrea, kafea, kopa eta purua. Edo bestela: arrain-zopa, baserriko oilaskoa entsaladarekin, postrea, kafea, kopa eta purua. Menuak, bata nahiz bestea, berdin kostatuko dira: 2.000 pezeta.

Interesaturik zaudetenok dei ezazue telefono hauetako batera: 88 42 09 (Aierdi-Goena), 88 60 98 (Auntsitate-leri) edo 88 00 44 (Lazkaoetxe). Azaroaren 30erako eman behar dira izenak.



Patxi Gorostiza txapeldun

Gaztelu elkarteak antolaturik, joan den urrian egin zen urteroko ehiz txapelketa Erreakabeltzan. Patxi Gorostiza ater zen txapeldun, 5 eper eta 3 faisana ehizatu eta 805 puntu eskuratu zituelarik. Bigarren postua Klaudio Jauregientzat izan zen, 3 eper eta 2 faisana bota eta 503 puntu lortu ondoren. Hirugarren, Gorka Arrese geratu zen, 403 punturekin. Gorkak 3 eper eta faisana

ehizatu zituen.

Guztira 19 ehiztarik hartu zuten parte. Gaztelu Elkarteak aldeztu aurretik mendian botatako 70 animaliatatik (40 faisana eta 30 eper) 47 bota zituzten: 25 eper eta 22 faisana; gainera erbi bat ere erori zen.

 **Rufino Iraola**



**10 Ind. Pol.
40-41 Pab.
☎ 88 91 00 - 04
Faxa: 16 08 06
Salbatore
BEASAIN**



✓ **P.V.C. ETA POLIETILENOZKO TUBERIA ETA OSAGARRIAK**

- Euri uretarako PVC-ko tuberia.
- Saneamendurako PVC-ko tuberia.
- Drenajeetarako PVC-ko tuberia.
- Janariekin erabiltzeko polietilenoazko tuberia.
- Nekazal erabilerarako polietilenoazko tuberia.

✓ **ERREGISTRO ETA SARETXOAK FUNDIZIOAN**

✓ **ERAIKUNTZARAKO TRESNERIAREN SALMENTA ETA ALOGERA**

✓ **ZULO SEPTIKOAK**



**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfonia: 88 87 02

BEASAIN

Ezkiaga Auzo Etxearen 2. urteurrena

Oria Pasealekuko 12. zenbakian dagoen Ezkiaga Auzo Etxeak badaramatza bi urte mar-txan. Bertako areto ai-pagarrienak ludoteka eta liburutegia dira eta ber-tan antolatzen diren ekintzak ugariak dira. Dinamizatzaile eta sus-pertzaile gune bat izatea, ekimen ezberdinei irten-bidea ematea, auzo eta herriko biztanlegoari zuzenduriko eguneroko zerbitzua izatea, gazteen sozializazio eta autono-mia on bat lortzeko es-kola eta etxeko ordueta-tik aparte baldintza onak eskuratzea ditu helburu.

Ludoteka 5 urtetik gorako edono-rentzat zuzendua dago. Bertako bazki-de eginez gero, aldizkari eta material didaktikoak izan daitezke eskuragai. Adin ezberdinetako haurrei egokitzen diren 3 giro jasotzen dira bertan, bes-teak beste, ihauteri jaia, zuhaitz eguna, bideo emanaldiak, ikastaroak eta puz-zle handien muntaiaak gauzatzen dira. Ludoteka astelehen, asteazken eta os-tiraletan egoten da zabalik, arratsalde-ko 5etatik 7etara. Liburutegia ere aipa-garria da. Liburutegi funtzioak bete-tzeaz gain, haurren irakurketa susper-tzeko ipuin kontaketak, hitzaldiak, lehiaketak, liburuen banaketak eta abar antolatzen dira. Tailerretako ekintza nagusia eskulanak eta ekintza kreati-boak izango dira: txotxa eta pintzen eraikuntza, artilezko panpinak, ga-tzezko poteak, buruhandien eraikun-tza, saskigintza, Gabonetako jaiotzak, apaingarriak, postalak eta abar luze bat.

Hilabete honetan aurrekoetan beza-la, hainbat ekintza antolatu dituzte: azaroaren 24rte ikusgai izango den erakusketa. Azaroaren 29an Virginia Imaz ipuin kontalaria arratsaldeko 5:30etan izango da bertako Liburute-gian. Aipatu, bertan egiten ari direla Josetxo Zufiaurrek eginiko 'Beasaingo Kale izenen historia'-ri buruzko Bea-saingo Paperak bildumaren 4. zenba-kiaren banaketa.



Ezkiaga Auzo Etxeko Ludotekan haurrak jolasean.

EA soldaduskaren aurka

Azaroaren 16an egin zituzten zozketen aurrean, prentsaurrekoa eman zuen EAK. Soldaduskari uko egiteko animatu nahi izan zituen gazteak. *"Euskal Herrian azken urteotan gizartearen militarizazioa eta ezberdintasunak eta gatazkak konpontzeko armen bidea gaitzesten duen kontzientzia pakezale garrantzitsua areagotu da"*, EAren esanetan. Ildo honetatik kontzientzia eragozpenaren edota intsumisioaren bidea aukeratu dute gazteek eta *"babes sozial zabala duen errealtate honek, giza baloreen aurka estatus militarra babesten duen lege zaharkitu bati aurre egin dio"*. Zerbitzu militarriari uko egiten dioten gazteek momentu hone-tan duten arazorik handiena, zenbait praktika antisozialetan identifikatzearen ondorioz sor daitekeen despresti-gioa da EAren esanetan. *"Arrisku hau gaindi daiteke antimilitarismoaren benetako baloreak berretsiz: toleran-tzia, justizia eta indarkeria eza"*.

Guzti honen aurrean, gazte bea-saindarrei bere laguntza eskaini die EAK. Udaleko Gazte Informazio Bu-legoak ere eskaintzen du orientazio eta informazioa.

Arangoitin aste kulturala

Astelehenean entzun ahal izan genuen

Arangoiti Zaharren Egoitzako aste kultura-laren hasierako txupina-zoa. Jai-giroko aste bat izango dute zaharrek. Ekintza ugari izango di-tuzte Arangoitin bertan. Musika izango dute na-gusi eta nola ez karta-txapelketak, bai Pun-ttuan, bai Seikoetan. Astean zehar talde ezber-dinen kantaldiak dituzte ikusgai eta asteburua ez dute makala gero. 'Na-gusiak gizartean' gaitzat izango duen hitzaldia izango dute entzungai ostiral arratsaldean, eta ondoren Gurea Abesba-tza eta J.J. Iturriotz soi-nujoleak egoitzako zoko guztiak musi-kaz beteko dituzte agure guztiak alai-tzeko asmoz.

Larunbatean musika saio ezberdi-nak aste guztiko giroa mantentzen saiatuko dira. Alde batetik Beasaingo Akordeoi Orkestra joango zaie beraien musika eskeintzera; bestetik, J.M.V. taldea arratsalde hasieran joan zaie eta arratsaldea amaitzeko, Loinatz Abes-batza. Igandean festa amaitu baino lehen Aurtzaka Dantza Taldeak bere saioa eskeiniko die goizez eta arratsal-dez musika artean txapelketetako sa-riak banatu ondoren, txupinazoak adie-raziko du festaren amaiera. Ez dute as-pertzeko denbora gehiegirik izango Arangoitin dauden agureek, eta are gu-txiago, herritarrek beraiek eginiko es-kulanak ikustera joaten badira. Aste guztian zehar eskulanean eta argazki zaharren erakusketa zabalik egongo da.

Santa Zezilia eguna

Azaroaren 22an ospatzen den Santa Zeziliaren ohorez (musikariaren eguna), hilaren 18tik 22ra bitartean, kontzertu zikloa izango da. Horren berri zehatza-goia Musika atalean duzu.

 Izaskun Salazar


Merkatal-gune berriaren plana martxan

Azken aldian merkatal gune berri bat egin behar zela eta ez zenaren zurrumurruak zabaltzen ari ziren herrian. Ba, azkenean, udaletxeak berau aurrera eramatearen intentzioa azaldu du, proiektua lantzearen ardura IBK kontsultorari emanaz. Jakina da azken urteotan Ordiziak merkatal munduan izan duen jeitsiera. Helburua zera litzateke, jeitsierarekin amaitzeaz gain, inguruko herrientzat erreferentzi gisa funtzionatzea.

Honela, IBK kontsultorako bi lagunek urriaren 28an dendarien aurrean egindako bilera batetan adierazi zuten, asmoa merkatal gune berri bat egitea da eta berau "Las Piezas" izenez ezaguna den lurretan joango litzateke (San Bartolome auzo inguruan, egun rugby-zelai berria egin duten tokian). Hauen esanetan, honek "eskaparate" gisa funtzionatuko luke, ondoren bertaratutako jendea gune historikora igoko delako ustearekin.

Proiektu hau, hasiera batean, begi onez ikusten dute bai Udalak berak, baita Sukia Eraikuntzak, CAFek, lurron jabeek (pribatuak baitira) eta Eroskik. Haez gain, derrigortzat jotzen dute dendarien Elkartek, Ordizian-ek, proiektua onartu eta bertan parte hartzea, azken batean euren mesederako izango baita IBKoen ustez.

Baina proiektu honek alde gehiegi ikutzen dituela ezin da ahaztu. Alde batetik hor dago Udala; bere ekimenez egindako proposamena bada ere, ziur gaude alderdien artean iritzi kontrajarrak egongo direla. Bestalde esan, merkatal gunea aurretik aipatutako tokian egin ezker oztopo geofisikoak nabariak direla gune historikoarekin loturak egiterako orduan (ibaia, trenbidea...). Dendariek ere ez dirudi begi onez ikusten dutenik plan hau, Eroski tartean izanda zalantzak sortzen bait zaizkie (hauen ustez Eroskik asko agindu, baina gero ez omen du hitza betetzen). Dendariei hiru hilabeteko



epea eman zaie erantzuna emateko. Eta azkenik hor ditugu Rugby Taldekoak, aditu batzuren ustez estatuko zelairik hoberenetakoa dena estreinatu ere egin ez, eta urte gutxira botea izango delakoaren susmoak aieratzen diren honetan.

Ziur gaude hari luzea ekarriko duen gaia izango dela merkatal gunearen hau. Beraz, GOIERRITARRA aldikari honetatik ahalik eta informaziorik zehatzena ematen ahaleginduko gara gauzak gertatu ahala.

Tasen igoera

Plenoak onartu berri ditu 1996rako zerga edo tasak. Hauen alde EAJ, EA, PSOE eta IU agertu ziren bitartean, HB eta PPK beren desadostasuna agertu zuten. Tasen igoera IPCa baino handiagoa dela kontutan hartu behar da, kasu batzutan %100era ere iritsiz. Adibide gisa, zaborrari eta urari dagozkien zergek %30 eta %40ko igoera jasan dute azken 3 urteotan. Hau dela eta, merkatarik askok begitxarrez ikusi dute igoera hau. Gainera, kasu batzuetan denden arteko diskriminazioa nabaria dela adierazi dute hainbat dendarik. Adibide gisa zabor bilketaren tasa ipiniz, 3 urtetan denda txikiek %74ko igoera izan duten bitartean, handiek (Eroski) %45ekoa besterik ez omen dute izan.

Gauzak honela daudenean, Udalak hilaren amaierarte itxaron beharko du onartutako tasei erabateko baietza

emateko, tartean aurkeztutako kexei aurre egin beharko baitie.

Enparantza Nagusia obratan

Konturatuko zinetenez Enparantza Nagusia andamioz inguratua ageri zaigu azken egunotan. Arrazoia sinplea da, sabaia konpontzen ari direla. Azpiko zutabeek sabaia pisu handia dela eta, jasan behar duten presioa handia da eta

horregatik sabaia arindu asmotan dabilta. Obra honek ondorio zuzenak ekarri ditu asteazkenoroko azokari begira. Hain zuzen ere, enparantza inguruan ipintzen ziren frutazale guztiek, obrak iraungo duen 4 hilabeteko epean, J.M. Barandiaran Plazan ezarri beharko dituzte euren postuak. Beraz, erosle, fruta nahi baldin baduzu badakizu nora hurbildu orain asteazkenetan.

Egin-Mus txapelketa

Beste herrietan gertatu den bezela, hemen ere jokatu da Egin-Mus Txapelketa nazionala. Urriaren 28an lehen kanporaketa egin zen. Iñaki tabernan 6 bikote aurkeztu ziren eta aurrera pasa zirenak Jauregi-Satur eta Tapia-Gorospe izan ziren. Herrikoan, berriz, beste sei aurkeztu ziren eta hemen De Pablo-Alfredo eta Joanes-Sarasa bikoteak sailkatu ziren. Azaroaren 4ean Herrikoan egin zen Ordiziako finala, aurretik aipatu lau bikote horien artean, hain zuzen. Irabazle Joanes-Sarasa bikotea izan zen. Hernanin jokatu den probintziako kanporaketan parte hartzeko txartela eskuratzeaz gain, 8.000 pezetako balioa duen afaria irabazi dute. Bigarren De Pablo-Alfredo bikotea geratu zen. Hauek 4.000 pezetako afaria dastatuko dute. Zorionak laurak eta ea Hernanin zortea duten, herriaren izena goian utziz.

 Aitor Calvillo

Ikastolatik atuna Sahararako

Mendebaldeko Sahariar herriak bizi duen egoera gogorra ikusirik, San Benito ikastolako ikasleek herriekiko duten elkartasuna erakutsi dute. Euskal Herri mailan *Eman lata* elkartasun kanpainarekin bat egin eta BBB-UBIko ikasleek 13.030 pezeta bildu dituzte bi egun eskasetan. Ondoren, jasotako diruarekin, 207 hegaluze edo atun lata (20 kilo) erosi eta kanpaina honetako Donostiako arduradunari utzi dizkie.

Ikasleek, duten elkartasuna eta laguntza gizakoia erakutsi digute oraingoan. Gazte hauek 100 pezetako *ikasleen dirulaguntza solidarioaren* bidez, bildutako diruaren zati bat lortu dute.

Euskadiko 1/8 rally txapelketa

Igande honetan, azaroak 18, ospatuko da Euskadiko 1/8 rally txapelketa. Goizeko 10etan hasiko da teledirigitutako autoen lasterketa hau. Azken bi urteetan San Migel inguruan modalitate honen erakustaldiak egin dira. Oraingo honetan, berriz, txapelketa ofizialeko proba bat antolatu dute Saltxa Kultur Elkartekoek Udalaren babesarekin.

Euskadiko txapelketa honetan 3 proba izango dira, lehena Bilbon izan zen, Lazkaokoa 2.a izango da eta aurrerago 3.a oraindik zehaztu gabe-



Plazan izango da 1/8 rally txapelketa.

ko lekuren batean egingo da. 25-30 inguru partehartzaile izango dira igandean. Aurreko lasterketak plaza ondoko aparkalekuan izan badira ere, oraingoan plazan bertan izango da.

Polikiroldegiko taberna

Joxemiel Barandiaran polikiroldegiko tabernaren kontzesio oinarriak Udaletxean daude. Orain arte taberna eraman duen Juan Mari Begiristainek utzi egiten du azken urteetan bertan egon ondoren. Hemendik aurrera lan horretan aritzeko prest daudenak azaroaren 24a baino lehen eman beharko dute izena. Oinarriak zabalak badira

ere, nagusienak euskaraz hitz egiteko gai izatea eta Lazkaokoa izatea dira. Kontzesioa 3 urtetarakoa da eta luza daiteke bi aldeak akordio batera iritsi ezkerro.

Mikrotxipa txakurrei

Herriko txakur guztiek mikrotxip bat eraman beharko dute erantsita datozen urte haseratik aurrera. Bereizgarri hau ez daramaten txakurren jabeentzat isunak egongo dira. Udalak aurrez jakinaraziko du noiz izango den mikrotxip hoiek jartzeko eguna.

 Iraida Martin - Mikel Albisu



- Bataio, jaunartze, lagunarteko eta negozio bazkariak
- 2.000 pztako menu bereziak
- Karta

Sagardoa urte guzian txiritik
Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 88 20 49

OLABERRIA

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
☎ 88 80 23

LAZKAO

URBITARTE sagardotegia



☎ 18 01 19
Ergoiena Auzoa
ATAUN


UNTXUNDEI Garajea



OSINALDE Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

Lotsa eta pena



Lotsagarria aurreko igandean, azaroak 12, San Martingo eleizan gertatu zena. Normalean eguerdiko 12etan izaten den meza, goizeko 11etan izan zen, festa antolatzaileek aurreratzeko eskatu zutelako. Meza, sakristi barruko kapillan. Meza-emalea berriz, Jabier apaiza, Jexux parrokoa San Gregorion zelako.

Hitzaldi garaian hots batzuk entzun eta meza eten zuen Jabierrek, zer arraio ari zen gertatzen ikusteko. Sakristiatik elizara atera eta laupabost gazte ikusi zituzten elizatik irten nahian. Eliztar batzuk kontuak eskatu eta erdi-borrokan hasi ziren. Sagardo-boteila eskuan, nahikoa edanda zeuden kanpokoak ziren gazte hauek. Azkenean, elizatik irten eta atea itxi zutenean ohartu ziren elizako aldare nagusian pankarta bat jarri zutela eta aldamenen kandela bat piztuta. Pankarta, Kalostra Handiko tabernatik kendutako "Peña Gorritz"-ena zen. Gerora ohartu ziren eliza barruan ibili zirela, itxura denez futbolearen eta ondorioz, emakumeen konfesio-lekuko besaulkien heldulekuak puskatuta, kandela leku batzuk ere bai, patena bat lurrean...

20-GOIERRITARRA

Hori guztia eliza barruan. Jabier apaizak mezarekin jarraitu zuen. Kanpoan ordea, Jexux parrokoaren kalizarekin zebiltzan jolasean, bota batera, bota bestera. Herritar batzuk kaliza kentzea lortu zuten. Geroxeago ordea, kotxean azaldu eta kaliza hartu eta ihes egin zuten.

Jexux parrokoak esan digunez, kalizak balio handia du berarentzat. Meza Berria emateko amak oparitu zion kaliza baita. Kaoba egurra-du gainera eta Jexuxen esanetan zaila izango da osorik, puskatu gabe egotea. Ertzaintza jakinaren gainean dago. Hamaika ikusteko jaio gara. Lotsagarria eta penagarria.

Gregorioko pilotaleku berriak. 'Zelaia' deitura zuen berez ere leku horrek eta lehengoari eustea erabaki da. Eutsiko al zaio? Paperean jartzea ez da nahikoa. San Martingoak ere badu bere izena, Auzoeta, baina gehienok San Martingo frontoia deitzen diogu. Zelaia izenarekin ere gauza bera gerta liteke. Horrelaxe galdu zaizkigu leku izen asko eta asko.

'Zelaia' pilotalekuko martxa Sutegi tabernakoek eramango dute. Erreserbak, dutsak, argi pizteak, garbiketak. Urtebeterako konpromisoa dago eta ondoren laura luzatzeko aukerarekin.

Pelotari eta pelotazale lekua da San Gregorio. Jaio al dira berriak?

6. umea

Atzeratuta gabiltza baina ez atzenduta. Agorraren 26an jaio zen Jaione Goikoetxea Albu. Gustora dira San Gregorion. Dendaberrin biziko da Agustin eta Maite aita-amekin. Zorionak denei.

'Saatsamendi'

Igandean, azaroak 26, egingo da Ataunen zehar 12. ibilaldia. Kirol El-

karteak antolatuta egingo da. San Martingo Plazan irteera goizeko 8etan. Gero, Ergonetik gora, Saatsamendira. Garai bateko Mikelete Etxea ikusi, Igaratzako Jentilarriak, Beotegiko Murkoa Trikuharriarekin, Nafar-Muga Altsasurekin etabar.

Bi bide berezi pasako dira: GR-12a, Euskal Herria zeharkatzen duena eta GR-121a, Gipuzkoari bira egiten diena. Ezagutu dezagun gure herria.

Heriotza

Azaroaren 4an hil zen Joxe Migel Goikoetxea Barandiaran. Arratibel erdikoa. 83 urte zituen. Atsekabeen lagun familiakoak.



Abesbatza ondo

Gustora gelditu da jendea herriko Abesbatza sortu berriak egin duen lehen saio ofizialarekin. Nerbioak bai baina maila ona eman zuela esan digute belarri ona daukatene.

Jende asko hurbildu zen San Martingo Elizan egin zen kontzertura. 23 aho-iz izan ziren guztira. 10 emakumezko eta 13 gizonezko. Zuzendari lanetan Maximo Goikoetxea. Ahalegin handia ari dira egiten, bai Maximo, bai Dionisio Etxeberría eta inguruko guztiak Abesbatza aurrera atera dadin. Zorionak eta txaloak.

'Zelaia' pilotalekua

Izen horixe du hemendik aurrera San

Jon Aizpurua

Kantoreen eguna

Santa Zezilia, musikari eta kantoreen patroia azaroaren 22an bada ere, herriko koruak azaroaren 25ean arratsaldeko 7etan, Pedro Bilbaok 3 bozetara konposatutako meza kantatuz eta ondoren Imazenean afalduz ospatuko du bere eguna. 65 urte betetakoei egiten zaien omenaldian, aurtengoan koruko beternoetako den Xabin Aldanondo izango da protagonista. Xabin 12 urte zituela hasi zen tripletan, zenbait urtetan korua desagertua egon ondoren, duela egun gutxi hil den Don Bizente Aranburuk birsortu zuenetik, 43 urtetan aritu da bertan tenore bezala. Aurreko urteetan, Joxe Mari Auzmendi, Felix Jauregi, Joxe Goia, Joxe Prontxio Ormazabal, Manuel Huerta eta Rafael Izagirre ere izan dira omenduak. Bestalde, hilaren 19an, 12etan, Pedro Bilbaok konposatutako meza kantatuko da koruaren sortzaile izan zen eta parroko lanetan 20 urte egin zituen Don Bizente Aranbururen alde.

Inutilen afarie

Umore onaren ohitura onari jarraituz, Ormaiztegiko festetako zapatuan, aurtengoan abenduaren 2an, egingo dute herriko inutillek bere IV. afarie. Iluntzeko 7etan daude zitatuak Antonkalenen, ondoren, eta trikitixa lagun, "baxoerdi jotzea" herrian zehar. Festa honetan parte hartzeko tabernetan dauden "inutill zerrenda"n izena eman behar da azaroaren 30erako.

Odol emaileen afariae

Azaroaren 18an, zapatuan, 7etan, hildako odol emaileen alde izango den mezaren ondoren, Zopajale elkarte



Nahiz eta guztiak egun berezietan bakarrik bildu, korua 35en bat lagunek osatua da. Horietatik 15en bat emakumezkoak dira eta 20ren bat gizonezkoak.

egingo dute afarie iluntzeko 9etan. Menua, barazki menestra, makailoa piparrekin, arrozenea, kafea, kopa, purua eta txanpaina, 2200 pezetan.

Kultur elkarte berria

Pasa den azaroaren 9an egindako bileran, Udaletxeko kultura eta turismo batzordekoek, herriaren historia, ondare kultural eta artistikoa, ohitura eta tradizioen ezagutza eta guzti honen

tzeko Udaletxean eman behar da izena.

Musika Eskola martxan

Azaroaren 6an egindako bileran, herrian musika eskola sortzeko proiektua azaldu zen. Bertan, 3 urtetik gorakoentzat nahiz helduentzat, txistu, trikitixa, akordeoia, kitarra eta pianoa ikasteko eskaintza egingo litzateke. Informazio gehiago Udaletxean.

Iparraldeko dantzak

Elorri kultur elkarteak antolatuta, Nafarroa Beherea eta Lapurditik etorriko diren Perttoli Elkarteko dantzariak "muttiko dantza" eta honen barianteak (hemen mutil dantzaz ezagutua) ikastaroa emango dute, zapatuan hilaren 25ean goizez eta arratsaldez. Hilaren 26an berriz, Urruñako talde bat etorriko da egun pasa. Elorri harrera egin ondoren, herria bixitatu eta herri bazkarian eta ondorengo musika festen parte hartuko dute. Dantza ikastarorako edota herri bazkariarako Elorripen eman behar da izena.

Korrikalariak

Azaroaren 5eko Ataungo 3 auzoetako 18 kilometrotako korrikaldian segurarrek izan zuten protagonismoa. Mari Karmen Elorza izan zen irabazlea emakumezkoen artean ordubete eta 23 minutuko denborarekin. Gizonezkoen artean, aipagarria da Zeles Soduperen ordubete eta 7 minutuko denbora. Behobia-Donostia lasterketan berriz, 9.000

korrikalarien artean 440.a sailkatu zen Zeles, ordubete 18' 10"ko denbora bikainarekin.



Txarteletan dionez, inutilen afaria, kardiakoak, besamotzak, asmatikoak, hankaokerrak, itsuak, gorrak, potoloak, flakoak, burutik egindakoak edo antzekoak bakarrik etor ditezke.

promozioa gauzatzeko, kultur elkarte bat sortzeko asmoaren berri eman zioten herriari. Batzartuen oniritzia jaso ondoren, kultur elkarte hori bideratzeko junta osatuko da. Bertan parte har-

Joseba Telleria


San Andres jaien hasera

Jai usaia nabari da herrian azken egun haue-
tan. Asteazkenean mendia-
diari buruzko ikus-ent-
zunezko eta hitzaldi
ugari izan da Mendiko
Astearen barruan. Gai-
lurrak egiten ohituta
dauden mendizale os-
petsuek bisitatu gaituz-
te. Besteak beste, Jose
Ramon Agirre 'Marron'
ataundarrak, Felipe
Uriartek eta Iñurrategi
anaiek.

Gaur, hilak 17, or-
maiztegiar baten txanda
izango da. Koke Lasarena hain
zuzen ere. Aurtengo abuztu-
an Hidden - Peak - Gasherbrum I
igo du. Rafa Berasategi segu-
rara ere saiatu zen ahalegin ho-
rretan, baina eskuko hatzetan
konjelazioak izan zituen-
ez, etxera itzuli behar izan zuen. Bi
protagonistak elkarrekin izan-
go dira. Beraz, xehetasun
gehiago jakin nahi izanez gero,
Kultur Aretoan, 19:30ean, du-
zue zita.

Datorren asteburua

Mendiari agur esanez, kaleak
hartuko du protagonismoa da-



Koke Lasa, Rafa Berasategi eta espedizioko talde guztia.



Iazko pala txapelketako 2. postua lortu zuen bikotea.

torren asteburuan. Jaiak
hemen izango dira.
Azaroaren 24an, ostira-
lean, gaueko 10etan,
desegindako 'Hertzai-
nak' taldearen, rock
kontzertuen zuzeneko
bideo emanaldia eskai-
niko da. Guzti hori,
'Hertzainak' taldeko
partaide eta abeslaria
izan zen Gariren eskutik.

Azaroaren 25ean, la-
runbatean, eguerdiko
12etan, herriko Enpa-
rantza Nagusian, koa-
drilak elkartuko dira
egun elegantea ospatze-
ko. Hasi elegante egingo dute,
eta bukatu? Arratsaldeko 5etan,
berriz, etxeko txikientzat bideo
emanaldia izango da Kultur
Etxean.

Azaroaren 26an, igandean,
12:00etan mountain-bike pro-
ba herrikoia izango da. Eta
arratsaldeko 5:30ean, III. San
Andres pala txapelketako fina-
lerdiak jokatu dira.

Aurrerako festen berri, hu-
rrango alean izango duzue.

 Aitziber Murua

LEGORRETA

Durangoko azokara joateko autobusa

Udaleko Kultur Batzordeak datorren
abenduari 6tik 10era Durangon
izango den Euskal Liburu eta Diskaren
Azokarako autobusa antolatze-
ko asmoa du. Bidaia abenduaren 8an egingo
da, goizeko 9:00etan abiatuz eta
eguerdiko 2:30erako itzuliz.

Parte hartu nahi duen orok datorren
azaroaren 24ko eguerdiko 2:30 baino
lehen Udaletxean izena eman beharko
du. Bidaia prezioa autobusaren kos-
22-GOIERRITARRA

tuarena izango da. Abenduari haseran
autobusa antolatzea posible izango den
edo ez erabakiko da.

Bidaia honen bidez euskal liburu eta
diskaren munduan izan diren argital-
pen berriak ezagutu ahal izango dira.
Abenduko zubian urrutira joan gabe
egun eder bat igaro ahal izateko aukera
interesgarria benetan.

Eskulan erakusketa

Udalak eta iazko eskulan ikastaroan
parte hartu zutenek eskulan erakusketa
bat antolatu zuten beraien lanak eraku-
tsi ahal izateko. Erakusketa hau aza-
roaren 11 eta 12an burutu zen Kultur
Etxean. Ea aurtun eskulan ikastaroan
izena eman dutenek beste horrenbeste
egiten duten.

 Josune Amondarain

Abenduan itxiko da Albitxu

Euskaldunok beti izan dugu janari dastatzaile bikainen fama. Aspaldikoa da euskal sukaldaritzaren ospea eta egun oraindik ere gure aiton-amonek utzi zizkiguten errezeta goxoak zenbait sukaldetan gauzatuko direla ziur gaude, eguneroko otorduren legez.

Halere modernitatearen gurruplak hain arin eta bizkor ematen ditu birak, non konturatzerako herririk kaxkarrenera ere pizza eta hamburgesa usaina iritsi baita, gure sukaldaritzaren oinarriak sustraietatik ateraz.

Honezgero hitz hauek zertara ote garamatzaten galdetuko dio irakurleak bere buruari. Herriko txoko xume bezain jator bat dugu gaur hizpide. Bertan inork inoiz pentsa ezin zezakeen unerik alaiak igaroko zituen batek baino gehiagok, lagunarteko afari, bertso kantu edo trikitiaren topaleku, eta familiarteko hamaika bazkariren nahastea sortuko genuke Anttoni eta Jose Luisek kontatu dizkiguten guztiak bat eginez gero.

Orain ordea, egia amets bihurtzeko garaia iritsi omen zaio Albitxu base-rrian bizi den senar-emazte bikoteari. Izan ere, 'Sanidadekoek' gaur egun eskatzen diren baldintza guztiak betetzen



ez dituelako itxiarazi baitie.

Jose Luisek honela zioen gaiari hautsak astintzen hasi ginenean: "28 urte izango dira Anttoni eta biok afaria-eta zerbitzatzen hasi ginela, baina, taberna legea nik hemen beti ezagutu izan dut. Orain, urte guzti horiek igaro ondoren, gaur egungo lege eta baldintzetan sartzen ez garelako, izugarritzko obrak egitera behartzen gaituzte".

Jose Luisek bazuen begietan nola-baiteko atsekabe keinu bat, izan ere, beraiek ez omen zuten horrela agurtu nahi hainbeste urteren buruan ohiko bihurtu zaien negoziotxo. "Gu gazteagoak izango bagina, hori eta gehiago egiteko ere prest egongo ginateke, baina geratzen zaizkigun indarrak

orain honetan eta gero hartan botatzeak ez duela me-rezi uste dugu. Izan ere, gaur sukalde industrialak eskatzen digute, baina bihar, auskalo zer esanez etorriko liritekeen hona", zioen etxeko jaunak.

Azken finean txukuntasunari ez diote ezer erreparatu, oso txukun egoten baitzen beti, eta garaian garai-koa eskaini ohi diote beti bezeroari. "Gertatzen dena da, hemen gauza guztiekin bezala, txikienari arnasa

ere kendu egiten diotela, horrekin bizitza galeraziko ez balute bezala, eta handiari, laguntzak eskaintzen zaizkio bere lanean jarrai dezan", zioten Anttoni eta Jose Luisek.

Orain, abendurarte edukiko omen dute Albitxu irekita, baina urtearen lehenengo egunetik, Albitxuko jangelan ez omen da beste platerik zerbitzatu.

Herritarrontzat, asko esan nahi du horrek, baina kontutan izan Euskal Herriaren ohitura tradizio eta kulturaren zati bat lapurtu digutela. Gune hauek baitira gure benetako izatearen adierazgarri.

Aloña Galarrraga

ZORION INSAUSTI

DIETA PERTSONALIZATUAK: argaltzeko, kolesterola, azido uriko, kirolari, eta abarrentzat.

Kale nagusia, 8

☎ 88 13 37

ORDIZIA

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerrria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15 ORDIZIA
☎ 16 07 07 OLABERRIA

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak zure sabelak esker-tuko duen menua eskeintzen dizu:

Astelehenetik osti-ralera menu bereziak.

Eguerdietan 2.000 pza. + BEZa

Toki mugatua dago, eskaerak aurrez egin.

On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
Ifnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

Rufino Iraolaren Orixe lehiaketako bertso irabazleak

Aurreko hamabostaldian GOIERRITARRAn jakinarazi genuen bezala, Urriaren 22an banatu ziren Orexan aurtengo Orixe Bertso Paper Lehiaketako sariak. Rufino Iraolaren *"Aitona Mantzalina"* izeneko bertsoek jaso dute saria helduen kategorian. *"Iparragirrereren doinuan"* ipinitako 10 bertso dira guztira. Gaztetan ezagututako eskale baten inguruan moldatu du bertso-sorta Rufinok. *"Parte bat guztiz, errela da eta bestea zeharo fikziozkoa"* adierazi digu bertso-jartzailerak zaldibitarak.

Ipuina kontatzen du Rufino Iraolak 10 bertso horietan, bertso bakoitzeko argazki bat-edo eginez. Bertso bakoitzak bere tokia du, bestalde, eta ordena hori ez dago trukatzetik.

Histori zaharrok irten zaitezte barren hontatik kanpora, zuen bitartez apur batean geldituko dut denbora. Aitona Mantzanila aspaldidanik hila, baina nahi nuke gogora haurtxo nintzela nola joaten zen eskean gure auzora.

Abuztuaren erdi aldera egiten zigun bisita; hura laineza hartzen genuen eskalea ikusita! Beldurrik ez genion nahiz beldurgarri egon, zarpa zahar haiek jantzita, mutur gorria estali, berriz, bizar zuria utzita.

"Ave Maria" egingo zuen baserriko atarian, eta segidan murgilduko zen errezoaren harian. Ez genion ulertzen eta gu barrez lehertzen. Ari zelako, ari han, Jainkoa Bera nahas zezakeen sudur-hizketa garbian.

Aita gurea, Agur Maria, Kredoa edo Salvea... Haren otoitza zena zela ez zen esperantzarik gabea. Gure amak askotan asetzeko asmotan urdai ta arrautza pareta. Toki askotan ez zen izango askoz limosna hobe!

Horrela janda tripa aldetik ongi berdintzen zenean, bedeinkazioz josten gintuen Jainkoaren izenean. Gero igarkizunak: "etxeko ondasunak haziko dira aidean eta zuk, berriz, emazte ona, beste haur bat sabelean".

Lehen ere ez zen gure etxean haurraren faltarik eta, gogoan daukat "norbaitek" nola zimurtzen zuen kopeta. Amak, aldiz, ondradu: "Jaunak hala nahi badu..." konformidadez beteta. Eskerrak ez zen beti betetzen igarlearen apeta!

Sekula ez zen deskuidatuko siestarako orduan... Halabeharrez intxaur handi bat bazen etxe inguruan, eta haren gerizpean euli denak bakean, bera zurrunga-soinuan... Ez zen esnatzen asunarekin igurtzi arren buruan.

Ilun aurreko freskurarekin ekiten zion lanari, etxaburuko zelai handian mantzalina bilketari; bizkarra makurtuta, belaunak okertuta osasunaren zaindari: bere denboran sendatu zuen tripako mina ugari.

Ez zuen uzten komisiarik, baizik beretzat guztia, eskulana ere erabat merke sobre baitzeukan astia... Ordiziara joan, ondo saldu gero han... Aze nolako piztia: geroen gauzak geroi saltzen jarduten zuen aztia!

Urte batean ez zen azaldu denok zain eduki arren, akabo gure agure zaharra eta hainbat oroitzapen. Nola egin ikerketa nik ez nekien eta ez nongo eta ez izen. Beste munduan ikusiko dut ta "requiescat in pacem".



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA



**KOLDO
TRIKITIXA
ESKOLA**

Giro jator eta atseginean
ikas dezazun zuk aukeraturikoa

☎ 88 50 85

LAZKAO

Santa Zezilia inguruan musikaz blai

Azaroaren 22an egutegian begiraturuz gero, Santa Zezilia jarriko du. Beste era batera esateko, musikarien patroia eguna dugu. Eta noski, hori ospatzeko aitzakia da. Musika kontzertu ugari antolatu da Goierri barrera. Ordizian, 'Bach musikaldia' bete-betean dugu, Bach musikari alemaniar handiaren urteurrena ospatzeko.

Ordizia: Bach musikaldia

Donostian eta Ordizian, Bach musikari alemaniarren omenezko musika zikloa ari dira ospatzen egunotan. Aurtengoa X. edizioa du Ordiziako Bach musikaldiak. Asteazkenean hasi eta larunbatean amaituko da Ordizian eta goi mailako musikariak entzun eta ikusteko aukera paregabea dugu.

'Capilla Peñaflorida y grupo instrumental' eta 'Farinelli' entzun ditugu. Ostiralean, berriz, hilaren 17an, 'Cuarteto Barroco' taldearen musikaz gozatzeko aukera izango da. Musikari gazte donostiarrek osatuta taldea da, lauak ere kalitate handikoak. Orain arte, banaka aritu izan dira bakoitzak bere musika tresnarekin. Orain, lehenengo aldiz, laurak elkarrekin, Ordizian ari-tuko dira. Guzti hori, Barrena Kultur Etxean, 19:30ean.



Lousiana Red.

Musikaldiari amaiera emateko, 'The Scholars Baroque of London' izango dugu entzungai, Eliza Nagusian, 20:30ean. 1987an sortutako talde honen kalitatea azpimarratu da behin eta berriro. Beraz, Ordizian, kalitatea nagusi egunotan.

Beasain: kontzertu zikloa

Beasainen kontzertu zikloa antolatu dute azaroaren 18tik 22ra bitartean. 18an, herriko Musika Eskolako Harizko Orkestrak kontzertua eskainiko digu. Parrokian izango da kontzertua, 20:30ean.

Igandean, 19an, Tirri-Tarra txaragaren kalejira eta Tirri-Tarra Show ikuskizunaz gozatzeko aukera izango

da San Martin Plazan, 19:00etan. As-telehenean, 20an, Xabier Lizasoren piano kontzertua izango da Udaletxeko Batzarre-Aretoa, 19:30ean. Asteartean, 21ean, Musika Eskolako ikasleen trebetasunak entzuteko aukera izango da. Hori, Udaletxeko Batzarre-Aretoa izango da, 19:30ean.

Santa Zezilia egunerako prestatu dute platerrik indartsuena. Nazioarte mailan ezaguna den blues kitarrajolea den 'Lousiana Red'-en emanaldia izango da. Alabaman jaioa da eta 9 urterekin umezurtz geratu zen, aita Ku Kux Klanen eskuetan hil zenean. Blueseko musikari hau Europan ospe handikoa da, Montreuxko Jazz Jaialdian, American Folk and Blues jaialdian eta bakearen aldeko mugimenduetan egoiteagatik batik bat. 1983an W.C. Handy saria jaso zuen gizonezkoetan blueseko artistarik hoberena bezala eta 1984an B.B. Kingek Montreuxko Jazz Jaialdian berarekin parte hartzera gonbidatu zuten. Berak blues alorreko musikari ospetsuekin lan egin du horien artean, Jhon Lee Hooker, Muddy Waters eta Jimmy Reed besteak beste. Gizon ospetsu hau azaroaren 22an Usurbe Antzokian izango da. Sarrerak 600 pezetan salduko dira.

 **Ander Mujika**



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

LIBURU AZOKA ORDIZIAN

DISKA
BIDEO
JOKU

NON: Abaria etxea, behea. Plaza Nagusian

NOIZ: Azaroaren 24tik abenduaren 3ra

ORDUTEGIA: Egunero 5etatik 8etara
Asteazken eta larunbatetan goizez ere bai, 10etatik 1era

ANTOLATZAILE: GOIERRIKO GOIZTIRI

LAGUNTZAILE:  **kutxa**



IMAJINA EZAZU EUSKADI IRABAZI DU PEPINEN ITZULERA IPUINAREKIN

X. Mendiguren: "Istorioak edonori gustatzen zaizkio"

Xabier Mendiguren Bereziartu ezkiotarrak *Imajina Ezazu Euskadi* saria irabazi du aurten, ipuinaren alorrean. Itzultzaile gisa askotan saritu dute, sortze-lanean, berriz, orain urte-mordo bat Agora saria jaso zuen, eta orain beste hau. Ipuineko pasadizoa Ezkion bertan gertatzen baita, ezaguna egingo zaie hango askori. Gu idazlearekin aritu gara berriketan, eta ipuina aitzaki, bere gazte-denborako zenbait pasarte ere berri-tu ditugu Igartu-beiti baserri famatuko semearekin.

G.- Zer da ipuin hori?

X.M.- Orain dela berrogeitaka urte Igartu-beitira mutiko bat ekarri zuen gure izeba moja batek ospiziotik edo, eta han bizi izan zen urte pare batean. Mutikoak alde egin zuen auskalo nora, eta hamabost urteren bueltan baserrira itzuli, eta lapurreta egiten saiatu zen. Harrapatu egin zuten, ordea! Eta herriko kartzelan sartu egun batzutan. Ipuina horren inguruan gertatzen den istorioa da. Beraz, familian gertatutako kontua da, eta ipuinean familiakoak agertzen dira, amona, aita, osaba, ama eta neu, izen eta guzti.

G.- Beraz, liburu honek zure gazte-denbora gogoratzeko modua eman dizu?

X.M.- Bai. Horrela hasitako ipuin bat izan zen. Baserriaren inguruko txikitako ohiturak, jolasak, bizimodua, idazten hasi nintzen. Eta horren haritik sortu zen ipuina.

G.- Ze ohitura?

X.M.- Nik, esaterako txikitan garia nola biltzen zen ezagutu nuen, nola garia jotzen zen, eta horren inguruan jai berezi bat izaten zen, eta auzokoak etortzen ziren. Txerri-hiltzea ere ezagutu nuen, edo erlijioarekin lotuta zenbait usadio. Esaterako, suberri-eskean ibiltzea, eta abar. Ohitura mordoska bat, egungo gazteek ezagutzen ez dituztenak. Gero, baserria bera deskribatzen nuen, hango istorioak. Eutanasia eta



Txikitako ohiturak biltzen ari da Xabier Mendiguren itzultzaileak.

katukumeak, esaterako. Katuak, txikiak zirenean, akatu egin behar izaten ziren, bestela ez zegoen jaten ematerik hainbeste katuri.

G.- Beraz, oroitzapen gazi-gozoak izan dituzu.

X.M.- Orohar onak, baina horrelako gauza txikiak gertatzen dira.

G.- Sarri joaten zara baserrira?

X.M. Urtean hiruzpalau aldiz. Nere anai-arrebek badituzte hiru etxe, han bizi dira.

Ez da lan etnologikoa

G.- Ohitura horiek bilduz lan etnologikoa egin nahi izan duzu?

X.M.- Nerea gehiago izan da neure txikitako oroitzapenak, eta nik bizi izan nuen mundua piskat berreskuratzea. Eta Pepinen istorioa ere hor zegoen.

G.- Eta Ezkio-Itsasoko gazteek, edo egungo gazteek, edo zure seme-alabek, -- bi ditu-- badute interesik zure txikitako bizimodua ezagutzeko?

X.M.- Istorioak edozeini gustatzen zaizkio. Nik kontatzen badiet nire seme-alabei txikitan behiak zaintzen ibiltzen nintzela, edo zenbait ohitura, hori beretzat gauza bitxiak dira, eta ez dakite horrek ze emozio sortzen dituen,

ze beldur... Hori ez dago kalean.

G.- Ordutik hona asko aldatu da zure jaioterria?

X.M.- Lan aldetik baserri hutsetik biziginen ia denok, eta gaur egun baserri hutsetik ia jende gutxi bizi da. Beno, jendea ondo bizi da orohar, itxura ona daukate etxeek, eta dirua sartzen den seinalea da, baina lehengo lan-sistema asko aldatu da.

G.- Pepinen istorioa sariketarako prestatu zenuen espreski?

X.M.- Ez. Denbora-pasa ari nintzen. Alabari eman nion irakurtzeko, eta nahikoa interesgarri zela esan zidan, eta orduan erabaki nuen sariketara bidaltzea.

Hizkuntzak, okerrera ez

G.- Goierriko euskara erabili al duzu?

X.M.- Ipuina euskara batuaz idatzita dago, baina pertsonaiek Goierriko euskara egiten dute, baserrikoa. Kontrastea nabarmena da; narrazioko euskara eta pertsonaia, beno gaur egiten den bezala, nobeletan.

G.- Zu itzultzaile zarenez... Askok aldatu al da zure herriko euskara?

X.M.- Ez hainbeste. Gertatzen dena da Ezkion pertsona batzuk landuagoa daukatela euskara, batez ere alfabetuta daudelako, ikasketak egin dituztelako... Eta pertsona horiek euskara erabiltzen dutenean, leku batzuetan behintzat, euskara oso batua erabiltzen dutela. Eta gero etxeko guraso eta zaharragoak direnek bertakoa egiten dute gehiago. Hor ez da halako etenik ikusten, baizik bakoitzak ze lanbide daukan, eta zertarako erabiltzen duen. Ni ere bertara joaten naizenean, bertako euskara erabiltzen saiatzen naiz. Hizkuntza eboluzionatzen ari da, eta ez nuke esango okerragorako denik.

 Jon Imanol Iturrioz



1967ko Komunio haundia Seguran

Segura aldetik bidali digute argazkia. 1954. urtean jaiotakoek, 13 urte zituztela, *Komunio haundia* egin zuten egunekoa. Argazkia Komentu aurreko zelaian ateratakoa da.

Goiko lerroan, ezkerretik eskubira: Juanito Aldasoro, Joxe Krux Intxausti, Julio Gonzalez, Pako Ariztimuño, Luli Izagirre, Pedro Saez, Iñaki Ugalde, Iñaki Oiarbide, Txema Arrue, Juan M. Imaz, Juan M. Agirre, Joxe Julian Legorburu, Jabier Arostegi, Pello Murgiondo, Ramon M. Telleria eta Josetxo Alda-nondo.

Beheko lerroan: Elena Perez, M. Dolores Oiarzabal, Lurdes Aldasoro, Lardizabal, Arantxa Elorza, Imakulada Ariztimuño, M. Tere Elorza, Mila Oiarbide, M. Ixabel Garaialde, Karmele Imaz, Tere Rubio, Rosa Manso eta Margarita Imaz.

Erretratu zaharrik baduzu, bidali Ordiziako 124 posta kutxatilara. Hutsik egin gabe itzuliko dira.



ARGI IBILI... ETA ERAMAN EZAZU

**HILABETEETARAKO UKIPENEZKO LENTEAK EROSTEAN
ERAMAN OPARI GISA JAKA HAU ETA LEHENENGO PAREA**

Orain, MultiOpticasen, Zerbitzu Optikoetan lehena, 6 hilabeterako Ukipenezko Lenteak eta horiek zaindu eta gordetzeko likidoak erosteagatik, lehen pareta eta jaka olinpiko berezia oparitzen dizkizugu.

BEZEROAREN ARRETA ETA ZERBITZURAKO TELEFONOA
900 - 34 35 36

Promozio honek izakinak bukatu arte iraungo du.



MULTIOPTICAS EIBAR

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

Bidebarrieta, 2 • EIBAR

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE

Ibargaray, 16 • BERGARA

J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA

ODOLKI FESTA BEASAINEN

KALITATEKO

**EUSKAL
OKELA** 

**IÑAKI KANPOS
AUTOZERBITZUA**

✕ Bertako haragia
✕ Odolki txorizo eta
tripaki bereziak

Zumalakarregi, 4
☎ 88 28 27
ORMAIZTEGI

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 **BEASAIN**



Giro jator eta atsegina

BASAKANA

**ITURRIOZ 11
BEASAIN**

OLARBIDE harategia
Odolkiak eta bertako haragia

☎ 88 17 17
Elosegi, 52

LAZKAO

☎ 16 05 16
Elosegi, 15

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA** 

OLANO
Harategia

Odolkietan berezitasuna

☎ 88 07 78
Andra Mari, 3 **BEASAIN**



J. MUJICA
Harategia

Nafarroa Etorbidea, 31 ☎ 88 04 88

BEASAIN

Nagusia, 16 ☎ 88 18 32
Gipuzkoa, z/g ☎ 88 08 78
Etxea ☎ 16 06 02

ORDIZIA

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA** 

PELLO
HARATEGIA

Otordu ona egiteko
okel eta odolki onak ezinbesteko

☎ 88 80 11
Mariaratz, 2 **BEASAIN**

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA** 


IÑAKI ZUBELDIA



Bertako haragiak odolki,
lukainka, saltxitxa eta
aurrez prestatutako janariak

Nagusia, 14 ☎ 88 27 47
BEASAIN

ARDOTEGIAK

— B —
ELOSEGI
— D —

— G —
ARACO
— S —

Poligonoa 201 Tfnoak.: (943) 88 09 79-88 80 89
Fax: (943) 88 80 89 **OLABERRIA** (Gipuzkoa)

Ctra. de La Puebla, s/n Tfnoa.: (941) 10 02 09
LAGUARDIA (Rioja Alavesa)

